



Karmen Etxalarkoa
pastoralaren azken saioa

Gehigarri berezia
Doneztebeko feriak → 23-27

BERA → 11
Kafe-antzerki zikloa
azaroaren 3, 10 eta 17an

AURTITZ → 20
Herriko bestak azaroaren
9tik 12ra ospatuko dituzte

GOIZUETA → 29
Goizuetan lan eta bizi lehen
jardunaldia azaroaren 7an

SARA → 40
Picassoren 'Gernika'
erreproduzitu dute

Maialen CHANTRE IRAZOKI | Mugarik Gabe Nafarroa elkarteko kidea

«Lehen sektorean ari den emakumea hagitz baztertua dago»

Emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza Nafarroan, generoaren ikuspegitik izeneko lana egin dute Mugarik Gabe Nafarroa, Mundubat eta IPES elkarteek elkarlanean. Tartean ibili da Maialen Chantre Irazoki beratar gaztea. Lehenbiziko sektorean lanean ari diren Nafarroako emakumeekin bilduz osatu dute lana. Emakume horien egoera zein den azalerratu nahi dute.

ELKARRIZKETA → 3



ARGAZKIA: RAKEL RICO

ERREPORTAJEA → 4-5

Nahi den hori eman eta hartu musu-truk

Dirurik erabili gabe, bizitzeko bertzelako eredu bat eraiki nahi dute Muxutruk atariaren sortzaileek.



KIROLA → 42

Duela bortz urte hasi zen trialsinean **Oier Mitxelena** beratarra, eta 17 urterekin, dagoneko lau aldiz izan da Nafarroako txapeldun.

LEITZA → 31

Leitza eta Aresoko produktuen hirugarren azoka azaroaren 12an egingen dute.

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera.

**BERAKO XIX.
KAFE-ANTZERKI
ZIKLOA 2017**

AZAROAK 3, ORTZIRALEA
22:00ETAN, KATAKU OSTATUAN
GILKITXARO TALDEA
MORBUS OPERANDI

AZAROAK 10, ORTZIRALEA
22:00ETAN, AUZOA OSTATUAN
JOSEBA USABIAGA ETA IÑAKI SANTOS
NI ALA ZU

AZAROAK 17, ORTZIRALEA
22:00, BIDAXKA OSTATUAN
JON MARTIN, XAMOA, ANDION ITURBIDE
ETA EÑAUT GANTXEGI
ESPUELA NAHI?



Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazpena

2017ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2017ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2017ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarquarekin kobratuko da.

Etxalar, 2017ko urriaren 1a
Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza Nafarroan, generoaren ikuspegitik. Horixe da Mugarik Gabe Nafarroa, Mundubat eta IPES elkarteek elkarlanean egin duten lana, Nafarroako

roako Gobernuaren diru-laguntzarekin. Tarteetan ibili da Maialen Chantre beratarrak. Iazko abenduan eta urtarrilean Nafarroako bortz eskualdetan bilerak egin zituzten lehenbiziko

sektorean lanean ari diren emakumeekin, eta maiatzean bertze bat Iruñean, denak gonbidatuz. Ekainean lana Parlamentuan aurkeztuzten eta geroztik, hitzaldiak eskaini dituzte.

Maialen CHANTRE IRAZOKI | Mugarik Gabe Nafarroa elkarteak kidea

«Krisian dagoen lehen sektorean emakumea are baztertuagoa dago»

G. PIKABEA | BERA

Landa eremuko emakume ekoizleen arabera, egiten duten lana ez da baloratua. Azaldu...

Hori izan da bildu garen emakumeen lehenbiziko kezka nagusia. Ez dute euren lana baloratua sentitzen, ikusezina dela diote, eta erabaki ahalmenetikia dutela. Horrek autoestimua falta ekartzen du, eta euren balioa etengabe frogatu behar izatea. Batzuetan eurek ere ez dute nor diren ikusten. Emakume aunitzek artzainen bikoteak edo abeltzainen alabak direla erranez aurkeztu izan ditugute euren burua. Ez dute euren burua artzain edo nekazaritzatik hartzen, eta eurek ere bikoteak bezainbertze edo gehiago egiten dute, bikoteak bezain artzainak dira.

Nekazaritza politikarekin ere kritiko dira...

Bildu garen emakumeak familia giroko ekoizle titikiak dira, salmenta zuzena egiten saiatzen direnak. Egungo nekazaritza politika eta araudiak ez daude euren erudera prestatuak, industria haundientzat baizik. Hortaz, nekazaritza politika eta araudia aldatu behar direla erraten dute, bertzela, desagertuko direlako. Eta aldaketa orain egin behar da. 20 urtez esperoan egoten bagara, ez da inor geldituko. **Jakintza falta ere somatzen dute gizartean...**



UTZITAKO ARGAZKIA

Maialen Txantre landa eremuko emakume ekoizleen inguruan egin duten lana eskuetan.

Jendeak ez daki zertan ari diren nekazari eta abeltzainak, ez du baloratzen baserriko lana: ingurua kudeatzen, bertako arrazak babesten, kultura eta eskulagintza mantentzen, elikagaiak sortzen egiten duten lana. Tomate eske joan izan zaizkie neguan, jendeak ez dakizki garrantziaren garaiako produktuak zein diren, ezagutza hori galtzen ari baita. Hiriak ez dute ezagutzen landa eremua, baina landa eremuan ere gero eta gehiago bizi gara baserriatik aparte. Herri batean ikasteagatik ez dute harreman gehiago baserriko lanekin. Emakume ekoizleei garrantzitsua iruditzen zaie hezkuntzak parte hartzea baserriko lanak segida izan dezan.

IKUSEZINAK

«Emakume aunitzek artzainen bikoteak direla erranez aurkeztu ditugute euren burua. Ez dute ikusten eurek ere bikoteak bezain artzainak direla».

LAN ZAMA HAUNDIA

«Nekazaritzan ari diren emakumeen gehiengoak herri titikietan bizi da eta zerbitzu publikoak falta dituzte. Zerbitzurik gabe, aunitzetan emakumea da lan guztiak bere gain hartzen dituen».

Landa eremuen egoerarekin ere kezka dute...

Orain dagoen ereduarekin, monolaborantzarekin, jendeak landa eremuetatik ospa egiten du. Lurrak gutti batzuen eskuetan gelditzen ari dira, eta gutti horiek gero eta lursail gehiago dituzte. Nekazari guttiago dago. Horrez gain, nekazaritzan ari diren emakume horien gehiengoak herri titikietan bizi da, eta zerbitzu publikoak falta dituzte. Badira ez dendarik, ez autobusik, ez medikurik, ez haur eskolarik eta ez zahar etxerik ere ez duten herriak. Eta aunitzetan emakumea da lan horiek guztiak bere gain hartzen dituen. Zonalde horiek despopulatu ari dira, eta benetan jendea

hor bizi zela eta jarduerak ekonomikoak izatea nahi badugu, administrazioak guttienero batzuk egin beharko ditu.

Hemendik aitzinera zer egiteko asmoa duzue?

Diru-laguntza berri bati esker, orain arteko sarea indartu eta zabaltzen segitu nahi dugu. Familia eredu eta ekoizpen jasangarrien alde interesa duen edozein gonbidatuko dugu: emakumezko eta gizonezko ekoizleak, administrazioa, gaia lantzen duten elkarte edo taldeak, interesa duten pertsonak... Beti ere lehen sektoreari begira. Bukaeran, Nafarroako Parlamentura joateko asmoa dugu eta aitzinekoan baino babes zabalagoa lortzea espero dugu. Prozesuan parte hartu zuen jende gehiena hurbildu arren, pena hartu genuen Nafarroako Gobernuak interes gehiago agertu ez zuelako. Bitartean, emakume ekoizleen egoera zein den azalartzen segituko dugu. Lehen sektorea aspalditik dago krisian, baina egoera horretan, emakumeen papera oraindik baztertuagoa dago. Landa eremuan bizi-tzeagatik zerbitzu guttiago dituzte, krisian dagoen sektore batean lan egiten dute, eta gainera, emakumeak dira. Hiru karga horiekin, azken mailan gelditzen dira eta hori ikusaraztea hagitz garrantzitsua da.



ARGAZIAK: MUXUTRUK.NET

Bakoitzak nahi duena eman eta hartzeko aukera du *muxutruk.net* atarian.

GIZARTEA → MUXUTRUK: DIRURIK GABEKO SAREA

Hartu eta eman musu-truk

Dirurik gabe, nahi dena eman eta hartzeko tresna sortu dute: Muxutruk sarea

Hartu eta eman, eman eta hartu, horrela egiten dira harremanak... Halaxe dio kantak. Bide beretik sortu dute *muxutruk.net* Interneteko

ataria, bakoitzak nahi duena eman eta hartzeko. Dirurik gabe funtzionatzen du, bizitzeko bertzelako eredu bat eraiki nahi dutelako.

G. PIKABEA

Ez dute dirurik nahi, «diru harremanak pertsonen hartu-emanak usteltzen dituela» uste dutelako. Trukea da nahi dutena, «bizi-harreman komunitarioen eta auzolanen kultura sustatu nahi dugu». Eta horregatik, hain zuzen, sor-

tu dute Muxutruk Dirurik Gabeko Sarea, «hartu eta emateko bertze eredu bat posible dela» sinetsita daudelako.

Interneten zabaldu duten *muxutruk.net* atariaren bidez funtzionatzen du Muxutruk Dirurik Gabeko Sarea. Webgune horretara sar-

tu eta kide egiten diren guztiek nahi dutena eman eta hartzeko aukera dute: elikagaiak, zerbitzuak, ekimen kulturalak, tresnak edo materialak, aisialdia, liburuak, ikastaroak, arropak... «Gauza materialera mugatu gabe, edozer gauzagaratik or-

daindu behar den mundu honetan, aldi berean dena eman daitekeela uste baitugu». Halaxe adierazi digute proiektu honen sortzaileak diren Hegoa Arrieta (Lakabe, Baztan eta Errekaleor) eta Beñat Elizalde (Ituren).

Arrietak kontatu digunez, Mexikora egin zuen bidaiaren ondorioz hasi zen guztia: «Muxutruk tresna komunitate zapatistetan sortu zen, Txiapasko oihanean, Mexikora egin nuen bidaiaren batean. Zapatistak izan ziren agintarien baimenik gabe, bizitzeko bertze modu bat posible dela erakutsi zidatenak eta ideia hori gurera ekarri nuen». Bidaiatik bueltan, lagunartean proposatu zuen, eta tartean zen Elizalde iturendarra. «Beñatekin batean, bidaiatik ekarritako gas itxurako ideia-

ri forma ematen hasi ginen. Aspaldiko bizimodu berreskuratzeko, hainbertze gorroto dugun sare sozial moduko bat eginez».

«Muxutruk tresna komunitate zapatistetan sortu zen, Mexikora egin nuen bidaiaren ondorioz».

Hegoa ARRIETA
Muxutrukeko kidea

Laguntza eske Ultzamarara joan ziren: «internet eta ordenagailuak ez genituenek eta ez ditugunez kontrolatzen, Ultzamako Ekaitz Astiz hackerrarengana jo ginen». Hala hasi zen guztia. Hegoa, Beñat eta Ekaitz izan ziren bidea ireki zutenak: «garbigailuen konponketak, raftinga eta ordenagai-

DATUA

200

ERABILTZAILE
ditu gaur egun Muxutruk atariak. Duela hiru hilabete, hiru lagunekin baino ez zen hasi.

luak formateatzeko zerbitzuak eskaintzen hasi ginen». Ez da hiruren artean gelditu egitasmoa, eta datuak dira arrakastaren lekuko: duela hiru hilabete hiru lagun artean hasi zena, Euskal Herriaren barna 200 erabiltzaile dituen proiektua izatera ailegatu baita. Eta lortzen ari diren emaitzarekin, «hagitz kontent» daudela onartu digu Arrietak: «sobera zabaldu gabe, Euskal Herriko iskin aunitzetara ailegatu garela. Ahoz aho zabalduz eta irrati, egunkari eta hau bezalako hedabideek aunitz lagundu digute. Gure proposamena ttikitik hasten da, soberan duzun

hori edo ematek, gus-tuko duzun hori eskaintzetik. Eta eskaintza gehiago egon ahala, nork daki non akituko dugun». Hori bai, argi du «Mercadona eta *facebookekin* akitzeko lanean segitu beharra dagoela».

ESKAITZA ZABALA

Gisa guztietako zerbitzuak eman eta hartzeko aukera eskaintzen du Muxutrukek: «enbotatzeko poteetatik hasi eta doula zerbitzura, liburuetatik raftingera eta tipula batzuetatik argazkilaritza ikastaroetara», aipatu digu Hegoak. Denetarik bada *muxutruk.net* atarian: arroila jaitsierak, zurgin lanak, bizikletak, liburuak, erlezaintzako ikastaroak, porruak, mendi itzuli gidatuak, musikatresnak, etxe-tresna elektrikoak, rotabatorak, diseinu lanak, kontzertuak, gitarra klaseak, eskalada, kirol errendimendurako plangintzak, rokodromoak, desbrozadorak, dronak, ile mozketak, arropa, tabletak, aterpeak, pul-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hegoa Arrieta Muxutrukeko sortzaileetako bat.

«Eskaintza gustuko duzunarekin lotua dago. Zure gustukoa baldin bada, zergatik ez da bertzeen gustukoa izanen?».

tserak, bertsoak, bibolin saioak... «Hartu edota zuk nahi duzuna emateko bizi proiektu komunitarioa da», dio.

EGITASMO IREKIA

Muxutruk sarea edozeinen eskura dagoela nabarmendu du He-

goak: «nahi duenak nahi duena hartu eta ematen ahal du inolako diru, denbora edo material trukerik gabe. Eskaintzea gustuko duzunarekin lotua dago eta zure gustukoa baldin bada, zergatik ez da bertzeen gustukoa izanen?. Guk beldurrarekin, lotsarekin, kezkarekin eta zalantzarekin eskaintzen dugu Muxutruk. Hori baino beldurgarriagoa, lotsagarriagoa, kezkagarriagoa eta zalantzarriagoa da etxeko sofan *whatsappari* lotua egotea».

«Dirurik gabeko ideia ez dugu guk asmatu, gure kulturaren parte izan da aspalditik».

«DIRURIK GABE HOBEBI»




«Dirurik gabeko gizartea posiblea dela frogatu nahi dugu», adierazi digu Muxutrukeko kideak. Hori ez da asmakizun berria. «Dirurik gabeko ideia ez dugu guk asmatu, gure kulturaren parte izan da aspalditik». Baina bere irudiko, «agintarien diru gosea guk berreskuratu nahi dugun bizitzeko eredu hori suntsitzen saiatu da betidanik». Hegoak garbi du: «denok dakigu zer dagoen

diruaren gibelean, baina inor ez dago prest bere pribilegioei uko egiteko».

Bere hitzetan, dirurik ez egoteak «zalan-tzarik gabe» bertze balore batzuk sustatzen ditu: «edozein diru erosketan egiten dugunean, bertako langileak bere lanarekin nazkatuak daude, zortzi ordu sartzen dituzte lana maitatu gabe, 1.200 euroko diru kontratu bategatik bakarrik. Guk horrekin hautsi nahi dugu. Norberak erabaki dezala zertan eta zenbat lan egin nahi duen. Ezinezkoa iduri du, baina praktikan jarritakoan, dena aldatzen da».

Egiten ari direnarekin «gozatzen» segituz, «kolektibo eta jende gehiagorengana» ailegatu nahi dute. Eta gisa berean, Muxutruk eraginkoragoa izan dadin, aplikazio bat egiten ere ari omen dira, «kideen arteko solasaldiak momentuan ailegatzeko eta parez pareko hartu-emanak bultzatzeko», dio Arrietak. Sistema alternatibo hau eraikitze bidean, gonbitea ere luzatu du Arrietak: «Eta zu, honen parte izateko prest zaudete?».

Kategoriak

 Elikagaiak barazkiak, konberbak, entzi, fruta, edarbak...	 Zerbitzuak konponketak, osasuna, informatika...	 Aisialdia mendi itzerrak, footing, eskalada, rafting...
 Arropa galitzak, kamisetak, jantziak, botzak...	 Ekimen kulturalak konzertuak, dantza, antzerkia, bertsoak...	 Liburuak eskola liburuak, nobelak, gidak, komikiak...
 Ikastaroak konberbak, eskulanak, konponketak, sukalaritza...	 Tresnak eta materialak erramintzak, sukaldariko, karpineroak, mendirako, mahalak...	 Saikatugabeak

Gauza materialetara mugatu gabe, eskaintza zabala dago Muxutruk atarian.

**Nire txanda**

Jon ABRIL

Eredu ona

Abuztuaren 5ean, Berako Bestetan, Altxateko plazatik txio hau bota nuen: "Petti eta Etxeko uzta Berako bestetan. Programak ederki zaintzen du etxeko uzta! Ez ezagunenak, ez loratuenak, baina besta eredu ona dugul". Egia da. Gure herrira jendea ez da trumillka etortzen besta egitera. Beharrik ere ez! Herritarrentzat pentsatuak dira, eta herritarrak paratzen dira bestaren erdigunean. Pettiren emanaldia, lekuko. Kalitate goreneko kontzertua, plaza betea, borts musikari beratar taula gainean. Hilabete pasa geroxeago, Etxalaroko plaza, bi egunez, jendez lepo. Euskal Herri osotik etorria, herri oso baten auzolana ikustera, *Karmen Etxalarkoa*. Aktore amateurak, profesionalen mimoarekin egina. Eta urri hondarrean, Berako abesbatzak, bandak eta Gure Txokoako dantzariak ikuskizun ederra Berako Herriko Etxeko plazan. Hiru adibide bertzerik ez dira, gure eskualdean, azken boladan ikusiak. Badira gisa bereko hamarnaka gehiago ere. Balio diezagula gogoetarako. Kanpokoak itsutzen baikaitu, sarri. Herritarrek kultura egitea kultur politiken oinarria izan behar dute. Baditugu eredu onak. Sakondu dezagun bide horretan.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Arraultzeak magrarekin

Beharbada ez du Omega 3rik izanen, edo LCa-sseirik. Ez daki bifidus-ik baduen. Hidrogeno hormaturik ez zaiola gelditzen erran dit eta ezin izanen duela behar bezala dekonstruitu. Sopletearekin azken ukitua emateko ere ez omen du gasarik, ezta olioia 65,5 gradutara dagoela neurtzeko termometrorik ere. Baina, ezin al dut betiko jatetxe honetan betiko arraultze prexietua magrarekin jan?

NabarmentzekoakMaite SANCHEZ
Emakume nekazariari saria

Betizu arrazako behiak hazten dituen Domiña azienda-ustiategiko nagusiak jaso du Espainiako Nekazaritza Ministerioaren Landa Berrikuntzaren Bikaintasun Saria Madrilen.

Alex MUGIKA
Nafarroako kaxuelarik onena

2013 eta 2014 urteetan bezala, aurten ere Iruñeko La Cocina de Álex Mugica jatetxeko sukaldariak Urrezko Kategoria lortu du Iruñeko Kaxuela eta Ardoaren XVI. Astean, Bildots Albondigekin.

Rosa ERRANDONEA
Lurraren Egunak omenadua

Gure Txokoa elkartearen eta Berako Udalaren omenaldia jaso du Lurraren Egunean argazkilariak. 1995ean hasita, herriko 4.000 argazki baino gehiago plaza-ratu ditu.

Atzera begira → 2007-XI-01 • TTIPI-TTAPA 457. zk**Tony Huarte, Amaiurko pilotari 'estatubatuarrarekin'**

Tony Huarteren aita artzain joan zen Ameriketako Estatu Batuetara eta bertan sortu zen Tony. 12 urte zituenean San Francisco utzi eta Amaiurrera etorri zen bizitzera, baina AEBn jaiotzeak, bertako selekzioarekin pilotan aritzeko aukera eman zion. Mundialetan ez ezik, duela hamar urte Bartzelonan jokaturako Munduko Kopan ere parte hartu zuen eta bigarren gelditu zen buruz buru. Huarterek gogoratzen zuenez, «Bartzelonako saioan hiru selekziotan aritu ginenak arras hurbilekoak ginen: Espainiarekin lesakarra, Frantziarekin nire etxetik 20 kilometro bizi dena eta AEBrekin amaiurtarra».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usua Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altxuri, Joseba Urroz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Alkoholik gabeko Munduko Eguna

Elizondoko Osasun-Etxea

Azaroaren 15a Alkoholik gabeko Munduko Eguna denez, Elizondoko Osasun-Etxeak egun horretako ospakizunekin bat egin nahi izan du. Alkoholaren kontsumoa osasun publikoko arazoa da, baina hala ere, gizartean ez dago kontzientziarik eragiten dituen kalterik isilenak edo gutien ikusten direnak saihesteko, osasunean sortzen ahal dituenak kasu. Alkoholaren kontsumoa 200 gaixotasun baino gehiagorekin lotua dago, eta gaixotasunaren garapenean edo emaitzetan eragin kaltegarria izan dezake.

Alkohola hartzen duten aunitzek akaso osasunarentzat kaltegarria ez den neurrian eta moduan edaten dute; baina maiz edateak edo noizean behin kontsumo altua izateak, osasunean arriskuak areagotu egiten ditu. Alkoholaren kontsumoa murrizteak edo saihesteak osasunari mesede egiten dio eta berehala nabaritzen da hobekuntza. Tokiko komunitatearen eremuan, lehen mailako arreta baliabide garrantzitsua da alkoholaren kontsumoak sortzen ahal dituen kalteak saihestu edo murrizteko. Hala ere, guti dira beren alkoholaren kontsumoaren inguruan medikuntzako edo erizaintzako profesionalekin hitz egiten dutenak.

Osasunarentzat arriskutsuak diren kontsumoak detektatu eta gehiegi edaten dutenei aholku labur bat ematea onuragarria dela sinetsita, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak eta osasun saileko Lehen Mailako Arretako zuzendariak martxan paratu duten programa pilotu batean parte hartzen ari da Elizondoko Osasun-Etxea. Kontsumo arriskutsuak hobeki detektatu eta kontsumo murriztu edo saihesteak osasunarentzat dituen onuren inguruan aholkuak ematea da helburua.

Osasun-Etxeko profesional guztiek formazio espezifikoa jaso dute eta hemendik guttira, osasun-etxe-ko erabileentzako jarduera gehiago garatuko dira. Aldizkari honetan eskuorri bat ere sartu da, eta hor, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, alkoholaren kontsumoaren mugen inguruko informazioa ageri da, *Ohi dena edatea gehiegi izan daiteke* izeneko kanpainaren barne dagoena, hain zuzen. Osasun arloko profesionalekin alkoholaren inguruan solastatzera animatu nahi zaituztegu.

«Alkoholaren kontsumoa 200 gaixotasun baino gehiagorekin lotua dago»

«Kontsumo arriskutsuak hobeki detektatu eta kontsumo murriztu edo saihesteak osasunarentzat dituen onuren inguruan aholkuak eman nahi ditugu»

Manex eta trikuak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Trikuak baditu hiru izen ofizial gutxienez, eta, Manex-en baserrian horrelaxe deitzen zioten, baina Euskal Herriko beste lurralde batzuetan kirikino eta sagra-roia ere esaten diote. Antza denez, trikuak gauzaleak dira, eta iluntzen duenean ateratzen omen dira janari bila. Besteak beste, honako animaliatxo hauek ditu bere menu barruan: barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoriak, sugeak... Norbaitek ukituz gero, berehala kiribildu egiten dira kirikinoak, beren burua babesteko; pilota bat bezala jartzen dira, inork kalterik egin ez diezaien. Trikuak oso animalia bitxiak dira, azpiko aldean hankak eta atzaparrak ezkutatuta dauzkate ile gogor eta latz samar batzuekin, isatsa eta belarri txikiak ere gorderik, eta era berean zango motzak. Mutur zorrotza daukate. Baina, gorputzaren gaina eta alboak arantzas inguratutik dute, morkots baten moduan, beren burua ezkutatzeko.

Udaberriko goiz batean, Manex baserri inguruko errekatxoaren ondoan zebilen zer suma, eta, halako batean, zer ikusiko eta trikukume bat topatu zuen, bere martxan lasai-lasai zihona, antza denez, berandu samar, eguna asfaltitxoan argituta baitzegoen. Lasai-lasai, noski, mutikoa agertu zen arte; baserriar txikia sumatu bezain azkar, bildu-bildu eginda jarri baitzen, zer gerta ere. Manexek egundoko jakin-mina zeukan ezagutzeko nolakoak ziren trikuak azpitik eta barrutik; ezin zuen irudikatu, trikuak beti kiribildu egiten baitzitzaizkion, pixka bat hurbilduz gero.

Hala, bada, goiz hartan, kume hura ustekabea topatutakoan, Manexi begitandu zitzaion aukera polita izan zitekeela, saiatzeko ikusten ea nolakoa zen triku txiki hura azpiko aldean. Makilatxo bat hartuta, animaliatxo gaixoa zanpatzen eta behartzen aritu zen, hankak ikusteko. Tripaz gora jarri eta hankatxoak aterarazten saiatzen zen, baina pixka bat ikusi orduko, triku berriz ere pilota bat bezala jarri eta mutikoak ezin izan zion barrualdea ikusi. Oharturik modu hartan ezin zuela lortu nahi zuena, hankekin eta makilatxoarekin erreka baztererraino eraman zuen triku bolatxo, arrastaka, eta geroxeago uretan sartu. Makilarekin beherantz zanpatzen zuen, itolarri hartan hankak eta burua ager zitzan. Pixka bat agertzen zituenean, Manex ahalegintzen zen azpiko aldea ikusten, baina biratu bezain azkar, berriz ere berehala ezkututzen zituen hankak, isatsa eta burua, eta Manex, orduan, lehen baino irrika handiagoarekin gelditzen ze.

Mutikoari ez zitzaion bururatu triku tripaz gora jartzea, makilarekin murgiltzerakoan, horrela, zabaltzen zenean, nahi zuena errazago ikus zezan. Lehen aldian bezala saiatu zen behin eta berriz, bihozgabe jokatuz, gero eta suminduago, bere helburua lortzearen. Baina, inola ere ez zuen erdiesten nahi zuen jomuga, eta eskuratzen zuen gauza bakarra zera zen, triku txikia gero eta gehiago itoaiztea, halako moduan, non Manexek beldur sentitu baitzuen kume hura hantxe bertan hil eginen ote zitzaion. Gauzak horrela, baserriar txikia, izututa, ohartu zenean zer egiten ari zen animaliarekin, triku gaztetxo uretik atera eta aske uztea erabaki zuen berandu baino lehen, eta, jarraian damu sakona sumatu zuen kontzientzian; oso gaizki sentitu zen, eta zin egin zion bere buruari, sekula santan ez zuela halako ankerkeriarik errepikatuko.



Irakurleak mintzo

Zorion bila

Esteban IRUSTA (Oñati)

Homosexualitatea, heterosexualitatea, bisexualitatea, transexualitatea. Sexualitateak zeresan asko eman du historian zehar. Erljioak eragin handia izan zuen bere sasoiari. Gaur egun, beste indar batzuek, Elizak defendatzen dituen ideien kontrakoak defendatzen dituzte. Sexu askearen alde lan egiten ahalegintzen dira. Denak zoriontasunaren bila. Askok sexuan jartzen dute zoriontasuna. Beste batzuek droga desberdinetan jartzen dute zorionaren itxaropena. Betidanik, gizakia, zoriontasunaren bila ibili da. Teoria asko daude gai honen inguruan. (...)

Askotan, eta normala da, lorpen batzuetan, helburu batzutan jartzen dugu gure zoriona. Eta lortu ondoren, behar bada, hobeto sentituko gara, baina horrek bazarrik, azken batean ez digu zoriona emango. Lorpen bakar batek, nahi besteko garrantzia izan arren berez, ez digu aseko gure gose eta bizitzako egarria. Gaur egun, kontsumismoan jartzen dute zorionaren oinarria. Ez dira falta alderantzizko bizitzajarraitu dutenak. Hau da, material-

tasunari uko egin diotenak eta ahal duten kontsumo txikiarekin bizi direnak. Erljio talde askoren sortzaileen helburua hori izan zen. Bide bat edo bestea hartu, denek zuten helburu berdina: Zoriontasuna lortzea. (...)

Bide desberdina baina helburu berdinarekin. Denok nahi dugu zoriontsu izan. Garai hauetan, zoriona beste bide oso desberdinetan aurkitzeko asmotan dago jarria. Bide horien artean, sexuak eta drogak, era desberdinetan, parte handia dute gaur egun. Sexu munduan, homosexualitateak eta transexualitateak protagonismo handia hartzen ari dira. Homosexualitatea ez da hain berria. Historian zehar gehiago edo gutxiago ezaguna izan da, eta beti hitz egin da berari buruz. Transexualitatea berri, askorentzat nahiko berria da, eta bere izatea hau da: gizonen gorputza eduki eta emakumea sentitu, edo emakumezko gorputza eduki eta bere burua gizona legez sentitu. Ez daude ados bere gorputzaren sexuarekin. Zoriona aurkitu nahian, beste askok droga mundura jotzen dute. Zorionaren ordez, zorigaitza aurkitzen du-

Bota bertsoa



Iratxe MUXIKA CARRION (Lesaka)

Doinua: Norbere mundu intimo

Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper lehiaketan lehen saria (11-14 urte)

Aiton-amonak

1 Lore bat zahartzen omen da gizaki baten antzera bizitza baten zikloak aurkitzen du bukaera lehen egunetik gure azken pausoen artera ta guztia aldatzen da denak irrisiz batera bi eskuak pixkanaka zimurtzen diren unera urteak begi zulotan ipuinetan murgilduaz memoria egitera zahartuaz itzultzen da berriz ume izatera.

2 Guztion elkarlan baten irudia dut gogoan bi adinak elkartuaz mila histori ahoan gazteok nagusiei gure egunerokoan zenbat kontakizun eta zenbat eguzki lainoan familiariko gazteenak dituztenean alboan aspaldiko gertaerak berri bihurtuz gaurkoan hainbertze besarkada ta hainbertze egun altzoan Bizitza ederra bait da Aiton-amonen ondoan.

te. Gehiago edo gutxiago bere bizitzari kalte handia egiten diote, eta askotan bere ingurukoak. Hor dabilta gazte talde asko bere txokoean orduak pasatzen gurasoen kontrolrik gabe.

Gaur egun, inoiz baino aukera gehiago dago ordu libretan denbora pasatzeko. Herri gehienetan kiroledegia eta liburutegiak daude, eta inon ez da falta pilotaleku bat. Sasoi batean pilotalekuak ume eta haurrez beterik egoten ziren. Gaur egun, hutsik

edo erdi hutsik ikusten dira. Horrez gain, nahi besteko pasealekuak eta mendi bazter eder baino ederragoak ditugu. Lurralde pribilegiatu batean bizi gara. Hone-lako aukerarik ez dute beste lurralde askotan. Gure etxeetako baldintzak ere askoz hobekiak dira, orain urte batzuetako baldintzekin alderatuz. Beharrezkoak dira gazte-txokoak? Ez daude beste toki egokiagoak beraien osasun fisiko eta mentalentzat? Garbi dago, egon ba-

daudela, inoiz baino ugariago. Baina zorion bila horrek, bide berriak ezagutzera eramaten ditu gazteak, eta askotan zorigaitza besterik ez dute aurkitzen. Zorionez ez dira gehienak, baina nahi genduzen baino gehiago dira bere bizitza eta ondorengorik dituzten familiarikoak arazo larrietara eramaten dituztenak. Zorion osoa, betea ez da existitzen, baina askotan aukerak jartzen diren bide batzuek kontrako norabideara eramaten dituzte.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
 Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Umetatik izan dudun profesionala izateko ametsa errealtate bihurtu da, entrenatza atera ateratzeko eta nire burua zaintzeko arrazoia hori zen. Taldeari eta babesleei gugan izan duten konfidantza bueltatzeko gogo handiak ditut. Leitzan ez da erraza txirrindulari izatea, ez baitago klubik, baina Mikel Nieve hor dugu, erreferente moduan».

«Nafarroako bertze leku batzuekin alderatuta euskararen egoera ona da Lesakan. Baina ikastola sortu zenean, euskara galtzen ari zen gazteen artean. Gaur egun 50 bat urte dituztenen belaunaldiak sufritu zuen hori, eta orain, ez daki euskaraz edo ez du erraztasunez solasten. Baina gazte gehienen hizkuntza euskara da gaur gaurkoz».

Ibai AZURMENDI
Leitzako txirrindularia
D.NAVARRA 2017.10.20

Amaia LASHERAS
Tanturumairu Ikastola
D.NOTICIAS 2017.10.14

11 galdera labur

Nor da Irati Mindegia?

Aurtitzen bizi den neska alai eta arrunta.

Trikilari, panderojole eta dantzari... nondik zaletasunak?

Aunitz gustatzen zait musika, bai jotzea, eta baita dantzatzea ere. Familia kontua da... Gure etxean beti izandu da musika gustuko!

Bestetan trikitixa eskuan edo belarrian?

Seguru aski belarrian gehiago, baina bi gauzak egiten saiatuko naiz.

Aurtitzko besten berezitasuna?

Herritarrak elkartzeko egunak dira. Gainera, azaroan besta bakarrak direnez, gogo gehiagoz hartzen ditugu.

Zein ekitaldi duzu gustuko?

Ortziraleko herri bazkaria. Herritar dexente biltzen gara eta bertsolari eta musikariekin sortzen den giroa hagitz polita izaten da.

Egunez edo gauzez nahiago?

Biak gustoko ditut, baina eguneko bereziagoa izaten da. Halere, eguneko gauekoarekin akitzen dugu!

Nola antolatzen dituzue bestak?

Irailean bildu eta erabakiak har-

tzen ditugu. Behin erabakita ardurak banatu eta bete... Bertze sekreturik ez dugu!

Asteburuko planik hobereena?

Konpainia ona izanez gero edozein plan ona da. Mendira joatea aunitz gustatzen zait...

Inguruko xokorik politena?

Aunitz daude... Bat erratekotan Mendaurreko ermita erranen nuke. Bertako parajea eta lasaitasuna izugarriak dira!

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Familiakoak eta ingurukoak ongi ikustearekin aski dut.

Amets bat?

Orain artean izan naizen bezala, zoriontsu izaten segitzea!



Irati MINDEGIA → Aurtitzko gaztea

saroha
gozotegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikoak
- Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

ORBEA CONDA SCOTT BH TREK

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

KULTURA

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA → ERRAN.EUS ATARIAK

Udako argazki lehiaketako sariak banatu dituzte

Epaimahaiak Elizondoko Bego Arizmendi saritu du eta erabiltzaileek Leitzako Amaia Iparragirre; bozka eman dutenen artean eginiko zozketan Marijo Garmendia elizondarra izan da saritua

TTIPI-TTAPA

Erran.eus interneteko atariak hirugarren aldiz antolatutako udako argazki lehiaketako sariak banatu zituzten urriaren 19an Donama-

riako Bentan. Aurten 85 argazki aurkeztu dira lehiaketara.

Argazki horien artean, Elizondoko Bego Arizmendiren 'Auzara begira' Lekarozen ateratako argazkiak irabazi du epaimahaiaren saria. Hala, Mutrikuko Haitzalde landetxean bi lagunendako bi gau eta bi gosari eskaintzen duen egonaldia irabazi du. Ttipi-Ttapa Fundazioko Joxema Irigoienek eman dio saria.

Erabiltzaileek ere izan dute hitza eta kasu honetan, Leitzako Amaia Iparragirrek Leitzan ateratako 'Polenaren bila' argazkiak jaso du boto gehien. Horrenbertez, Lesakako Nafarroa Oinezeko *Bikin bat in* material-lotea izan du saritzat. Nafarroa Oinezeko material batzordeko Marijo Arburua eta Ruth Vazquezek eta Xorroxin



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Argazki lehiaketako saridunak, sari-emaileak eta antolatzaileak, Donamariako Bentan.

Irratiko Julen Zelaietak eman diote saria.

Bozka emanez parte hartu duten 71 erabiltzaileen artean Donamariako Bentan bi lagunendako otordua zozketatu da eta hori Marijo Garmendia elizondarri egokitu zaio. Donamariako Bentako Lorea Luzuriagak eman dio saria.



ARGAZKIA: BEGO ARIZMENDI

'Auzara begira', Bego Arizmendi elizondarriaren argazkiak irabazi du epaimahaiaren saria.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ERREKALDE
OSTATUA
PLATER KONBINAUA
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259
BERA



ARGAZKIA: AMAIA IPARRAGIRRE

'Polenaren bila', Amaia Iparragirre leitzarriaren irudia izan da erran.eus atariko erabiltzaileen gustukoena.

KULTURA → AZAROAREN 11N SAN ESTEBAN ELIZAN

Andra Mari Abesbatzaren emanaldiak borobilduko du Fagoagaren urtea

Gabriel Fauréren *Requiem* kantatuko du

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga, bada tenorea! goiburupean Agramonteko tenore eta idazlearen omen urte osoan antolatu diren ekitaldiak borobiltzeko goi-mailako kontzertua antolatu dute. Errenteriako Andra Mari Abesbatza famatuak emanaldia eskainiko du azaroaren 11n, larunbatean 20:00etan San Esteban elizan. Gabriel Fauréren *Requiem*-a abestuko dute. Sarrerak salgai daude (aitzinetik 8 euro, egun berean, 10 euro): Agara, Irene, Igone eta Zelaieta estankotan.

XIX. Kafe-Antzerki Zikloa abiatzear

Euskara Batzordeak, Kultur Batzordearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako Kafe-Antzerki Zikloaren

hemeretzigarren edizioa azaroaren 3an, ortzirale arratseko 10etan abiatuko da Katakua ostatuan, Gilkitxaro taldearen *Morbus Operandi* ikuskizunarekin.

Azaroaren 10ean, ortzirale arratseko 10etan Auzoa ostatuan *Ni ala zu* antzezlanaren aurkeztuko dute Joseba Usabiaga eta Iñaki Santos antzezleek eta azaroaren 17an, ortzirale arratseko 10etan, *Es-puela nahi?* antzezlanaren aurkeztuko dute Bidaxka ostatuan Jon Martin, *Xamoa*, Andoin Iturbide eta Eñaut Gantxegik.

Asier Gogortzaren 'Muga' erakusketa

Asier Gogortzaren *Muga* argazki erakusketa zabalik dago azaroaren 12ra bitarte, larunbat eta igandetan 16:00etatik 19:00etara Kultur Etxean. Aldi berean, Azkainen ere erakusgai ditu serie honetako bertze zenbait lan.

2014an lan hau egiten hasi zenean, baldintza bat jarri zion bere bu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Euriari aurre eginez, XXXI. Lurraren Eguna arrakastatsua

Tarteka bota zuten euriari aurre eginez jendetza bildu zen urriaren 22an, Gure Txokoak 31. aldiz antolatutako Lurraren Egunean. Gazta lehiaketan hamahiru ale aurkeztu ziren eta horien artean, Lesakako Arteneko Jaxinto Otxotekok eraman zuen 220 euroko lehen saria eta Bimitxeneko Eider Pikabeak bigarrena, 100 eurokoa. Biak ere lehen aldian dute ohorezko postu horietan. Azken urteetan ohiko garailea izan den Garmendiko bordako Sokorro Almandozek epaimahaiaren aipamena jaso zuen. Sagardo lehiaketara, berriz, 14 botil sagardo aurkeztu ziren eta horien artean, Leku-Ederreko Guillermo Perugorriak aurkeztutakoak eskuratu zuen 200 euroko lehen saria. Maleteneko Alejandro Alzugurenak 75 euroko bigarren saria eraman zuen. Bezperan, 1995etik 4.000 argazki baino gehiago plazaratu dituen Rosa Errandoneari omenaldia eskaini zioten Gure Txokoak eta Udalak. Hamekagarren barazkiopil lehiaketa ere egin zen larunbatean. Hameka kuadrilen artean, Irene Matxiarena, Itsaso Berroeta eta Mari Karmen Urtzegik osatutako taldeak lortu zuten lehen saria, 100 euro eta kaja bat ardo. Bigarren saria, kaja bat ardo, Zinaurriak I taldeak eskuratu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Soinu, kanta eta dantza emanaldi berezia Herriko Etxeko plazan

Soinu, kanta eta dantza emanaldi berezia eskaini zuten urriaren 20an Herriko Etxeko Plazan. Gure Txokoa dantza taldeak, Berako Musika Bandak eta Berako Abesbatzak eskaini zuten saioa eta beraiek antolatu zuten, Berako Kultur Batzordearen, Berako Udalaren, Xuga Ostatuak eta Taberna edarien laguntzarekin.



Ba al zenekien

Izarra tanatorioak prest duela Beran bere zerbitzua eskaintzeko lekua?

ruari: irudia egiteko momentuan argazki makinak muga marraren gainean egon behar zuen.

Manterola
Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

Goieko DESIN **ERA**

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK

Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xagutxoak garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

xirgil
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

BEKO

LÖREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

LESAKA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 15EAN

Milaka lagun bildu ditu Nafarroa Oinezek

Euskal Herri kanpotik Lesakara etorri eta seme-alabak ikastolan matrikulatzea erabaki zuten hamabi familia omendu zituzten

intxaurren bat landatu zuten, aurtengo Nafarroa Oinez logoari bi hosto utzi dizkion eta ikastolaren 43 urteko historiaren lekuko izan denaren ondoan. *Plazara Dantzara* kantaren doinupean, antzerkitto bat egin zuten ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek eta horietako bi neskatok intxaurren busti zuten, etorkizunearan ere itzala eman dezan.

Euskal Herri kanpotik Lesakara etorri eta beraien seme-alabak ikastolara eramatea erabaki zuten 12 familia omendu zituen Tantitumairuk. Belinda Linares Vaquero ikasle ohiak hunkiturik solastu zuen familia horien guzietan. Eskerrak eman nahi izan zizkien gurasoei «ikastolan matrikulatzeko apustu hori egiteagatik, eta euskaldun izateko aukera emateagatik». Nafarroako Ikastolen Elkarteak IKA eskualtegi sarea omendu zuen. *Txikiak Handima* nifestua ere sinatu zuten Kataluniako Aran bailaratik etorri ziren kideek. Ekitaldia bukatzeko, 2018ko Nafarroa Oinez lekukoa hartu zuten Altsasuko Iñigo Arizta ikastolako kideek. Urriaren 21ean, lekuko hori lasterka mendiz mendi eraman zuten Lesakatik Altsasura.

Aitor AROTZENA

Euskararekin eta ikastolekin *bikin* bategiteko Tantitumairu Ikastolak egindako deia milaka eta milaka euskaltzalek erantzun zioten urriaren 15ean.

Ikastola atarian egindako irekiera ekitaldia eta Harriondoan egindako omenaldiak aski hunkigarriak izan ziren. Lehenbizikoan, Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko presidentearikin batera, politika, udal eta kultur ordezkariak zabala izan zen. Nafarroa Oinezeko kantaren, bideo-kliparen eta urte osoan gauzatu den jardura egitarauaren zutabe izan den tobera protagonista bilakatu zen, Arritxu eta Iratxe Muxikaren eskutik. Era berean, Mari Karmen Ubiria eta Arantxa Erran donea ikastolako ikasleen ama eta amatxiek



ARGAZKIAK: NAFARROA OINEZ

Goitiko argazkin, Harriondoan omenaldia jaso zuten familiak. Beheitan, Tantitumairuko ama eta amatxiak intxaurren bustitzen eta guneetako batean izan zen giroa.

Haurrentzako ikuskizuna igandean

Nafarroako Antzoki Sareko zazpi kidek par-

te hartuko duten Bira-bira programaren baitan, azaroaren 5ean, igande arratsaldeko 5etan, Harriondo Kultur Etxean, Gorakada

taldeak *Titirikontu-kontari* ikuskizuna eskainiko du, 3 eta 7 urte arteko haurrei zuzendua. Sarrera 3 euro kobratuko da egun berean.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Omenaldiak San Fermin Elkartearen Egunean

San Fermin jubilatuen Elkartearen Eguna ospatu zuten urriaren 20an. Aurten ere, Diamantezko eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten bikoteei eta 85 urte betezen dituzten bazkideei omenaldia eskaini zitzaion. Meza ondotik, Iker Taintak Aurrezkoa dantzatu zuten omenduen plazan eta gero bazkaria izan zuten frontoian. **Diamantezko Ezteiak:** Juan Imaz Etxezarreta eta Maria Teresa Irazoki Larralde. **Urrezko Ezteiak:** Agustin Apeztegia Tapia eta Nicolasa Otxoteko Almandoz, Martin Zozaia Abanz eta Maria Antonia Apeztegia Tapia, Manuel Maia Garces eta Maria Isabel Tainta Pikabea eta Jose Ignacio Aranburu Alustiza eta Alicia Gortari Aldabe. **85 urtekoak:** Melchora Etxebeste Zozaia, Pedro Larralde Gaztelumendi, Isabel Maritxalar Iturria, Natividad Mayo Etxeberria, Carmelo Orube Iparagirre, Mercedes Retegi Petrikorena, Nelida Sanjurjo Lizardi, Jesus Susperregi Oronoz, Carmen Iantzi Irigoien, Isabel Zabala Maritxalar eta Bautista Huizi Madariaga.

KULTURA → AZAROAREN 5EAN BAZTAN PILOTALEKUAN

Karmen Etxalarkoa pastorala Elizondon eskainiko dute

Herritarrak gogotsu aritu dira lanean hirugarren emanaldirako

Irune ELIZAGOIEN

Berriz ere entsaio eta prestaketetan aritu dira herritarrak *Karmen Etxalarkoa* pastoralaren hirugarren emanaldi bat eskaintzeko, Elizondon azaroaren 5ean. Xorroxin irratiak antolatuta, Baztan pilotalekuan izanen da igandean 15:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude, Baztan, Malerreka, Bortzirriak, Xareta, Baiona eta Iruñean (15 euro). Etxalaren Herriko Ostatuan, Herriko Okindegian eta Elutsan ere eros daitezke.

Konposta prest

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak jakitera eman duenez, araztegiaren ondoan belar eta baratze hondakinekin egin den konposta prest da-



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

Aurtengo uso-sasoia motelago hasi dute usazaleek.

go eta nahi duenak hurbildu eta behar duena hartzeko aukera du.

Usategiak

lazko denboraldiarekin konparatuz, aurtengo motelago hasi dute usazaleek. Denboraldi hasieran lainoa, ondoren haizegoa izan dute eta, horren eraginez, ez da uso aunitzik pasatu. Urriaren 23a izan

Ba al zenekien

Izarra tanatorioak prest duela Etxalarren bere zerbitzua eskaintzeko lekua?

zen denboraldia hasi zenetik egunik onena, 12 dozena harrapatu baituzten. Egun hori bitarte, 32 dozena dira sareetan harrapatutakoak. Oraindik, hala ere, azaroaren 20ra arte luzatuko da denboraldia eta usoak berandu pa-

satzen ari direla kontutan hartuz, usazaleek itxaropena dute harrapaketa kopurua dezentte igoko dela. Bisitarietarako dagokienez, ordea, inoiz baino gehiago dira usategietako tradizio zahar hori ezagutzera hurbiltzen direnak.



FLASH

Lizarrara bidai

Larraburuak elkartek ateraldia antolatu du azaroaren 11n Lizarrara. Ateraldiaren prezioa 48 eukoa da eta 30 lagunera iritsi behar da gauzatu ahal izateko. Izena emateko azaroaren 3a baino lehen deitu behar da 948635166 / 664387343 telefonora. 08:30ean aterako da autobusa Landaburuko parkinetik eta ilunabararako itzuliko da. 10:30tan Abarzuzan hamaiketako izanen dute, ondotik Irantzuko Monasteriora eta Lizarrara bisita gidatua eta, azkenik, bazkaria Larrionen.

Altzarien zaharberritze ikastaroa

Larraburuak antolatuta altzarien zaharberritze ikastaroa izanen da azaroaren 18an hasita, 8 egunez (3 orduko saioak). Ikastaro honen helburua etxean egiteko teknikak erabiltzen ikastea da: altzarien egoera identifikatzea, xilofagoen eraso maila identifikatzen ikastea, segitu beharreko tratamendu eta aplikazioa egiten ikastea eta desagerketa eta gainazalaren prestaketa lantzea. Hainbat zaharberritze teknika landuko dira.

Gure Hularka

Bittiria plaza 8
LESACA
T. 677 606 292

EKIALDEKO MASAJEAK

ESPRES MASAJEA
15 minutuz kendu lepo, sorbalda, bizkar eta gerrialdeko minak 10 euroren truke.

MINDFULNEESS jarduerak.
Luzaketak, erlaxazio...

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattogorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurrana, 3. Lesaka
Tel: 948 637 127

ARANTZA

GIZARTEA → GURASO ELKARTEA

Eskolako ikasle, irakasle eta langileak ageri diren egutegiak egin dituzte

Hamar eurotan
paratu dituzte
saltzeko

Nerea ALTZURI

Heldu den urterako egutegiak prest ditu Guraso Elkarteak. Hutsik egin gabe atera ditu, eskolako ikasle eta irakasleez gain, aurten jangelako langileak ere ageri dira. Hamar eurotan paratu dituzte salgai eta norbaitek eskuratu nahiko balu, aski du Guraso Elkarteko norbaiti erratea edo, arantzakogurasoelkarta@gmail.com helbidera eskaera bidaltzea.



HITZALDIA

Guraso Elkarteak hitzaldia antolatu du azaroaren 16rako. *Anai-arreben arteko norgehiagoka eta konplizitatea* izanen dute hizpide eta gaz-

telaniaz izanen da. Eskolan eginen dute, 16:30etik 18:00etara eta dohainik izanen da. Joan nahi duenak azaroaren 13a baino lehen apuntatu beharko du, arantzakogurasoelkarta@gmail.com idatzita edo juntako norbaiti abisatuta.

Antzerkiak

Oraindik Eguberrietarako aste batzuk gelditzen baldin badira ere, hasiak dira eskolako lagunak antzerkiak prestatzen. Aurten Estitxu Mentaberrri ari da obrak prestatzen eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak berekin ari dira. Bi emanaldi eginen dituzte: abenduaren 15ean, 14:30ean, guraso eta herritarrentzat, eta abenduaren 20an Igantzi eta Etxalarko eskolako ikasleentzat.

Tradizio handia du antzerkiak eskolan. Aspaldiko urteetatik egiten dira eta horrela segitzeko gozoz daude orain ere.

Oibarko abesbatza

Fernando Otanok zuzendutako Oibarko Aritzabesbatzak kontzertua eskainiko du azaroaren 25ean eskolan. Xehetasunak hurrengo alean izanen dituzue.



Ba al zenekien

Izarra tanatorioak prest duela Arantzán bere zerbitzua eskaintzeko lekua?



ARGAZKIA: ARANTZAKO ESKOLA

Eskolako ikasleak ingeleseko kanpaldian

Inglesean murgilduz, 3. zikloko ikasleek *English Week*-en parte hartu zuten urriaren 2tik 6ra Lekarozen eta hagitz gustura egon omen ziren. Goizez klaseak izandu zituzten, eta arratsaldean hainbat ekintza: igerilekua, inguruko herrietara ateraldiak... Hizkuntza ikasteaz gain, lagun aunitz egin zituzten. Iruñeko bi ikastetxe eta Castejongo bertze batekin batera izan ziren egonaldian.



ARGAZKIA: AINTZANE ITURRIA

Loreto Taberna omendu du Arkupeak Elkarteak

Bazkidearen Eguna ospatu zuen Arkupeak Elkarteak joan den urriaren 19an, eta hantxe omendu zituen aurten 50 eta 60 urte ezkondurik eta 85 urte bete dituzten bazkideak. Omenduen tartean zen Loreto Taberna, aurten 85 urte bete dituelako. Ez berak eta ez familiak ere, ez zuten galdu hitzordu polit hori. Zorionak!



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

Udazken koloretan

Aski kolore politak hartuak dituzte gure bazterrek garai honetan.

GIZARTEA → IKASTURTE OSOAN

Ez dago aspertzeko arrazoirik kultur eta kirol eskaintzarekin

Haur zein helduentzat aukera zabala dago herritik atera gabe

TTIPI-TTAPA

Igantzioko bestak pasatuta, herritarrak jo eta ke hasi dira bere denbora librean betetzen. Anitz dira herritik kanpora joaten direnak kirola edo bertzelako ikastaroak egiteko, baina herrian bertan harrizkeko moduko eskaintza dago, gustu guztietarako.

KIROL ESKAINTZA UGARIA

Iaz hasitako bidetik, aurten ere haur zein helduek Kickboxing egiteko aukera dute, aste-

lehen, astearte eta ortzegunetan, gimnasioan, 19:00etatik 20:00 bitartean, Carlosekin. Horrez gain, kirolarekin segituz, eskolako haurrek (9-12 urte bitartekoek) multikirola egiten dute asteazken eta ortzirale arratsaldetan; abendura bitartean Lesakako igerilekura joan dira, eta urtarriletik aitzinera herrian bertan arituko dira.

OHIKO DANTZEKIN BATERA HIP-HOP

Iaz bezala, aurten ere dantza taldeko irakasleek hasiberrientzako dantza ikastaroa eskaintzen dute. Taldetxo polita hasia da dagoneko, asteazkenetan 19:00etan gimnasioan. Muxikoak, jotak, zortzi-koak... ikasten arituko



UTZITAKO ARGAZKIA

Gantxilloa egiten ikasteko talde kozkorra elkartzen da ortziralean, La Villan.

dira.

Aurten hip-hop aegiteko aukera ere bada. Irailean bertan hasi zen haur eta nerabe talde bat Sara Telletxearekin, ortziralean 17:45-18:45 bitartean gimnasioan.

MUSIKA

Astearte eta ortzegunetan solfeo ematen du Isabel Lakarrek Erretorbaitan, 16:00etatik 18:00 bitartean. Aurten, berrikuntza modura, gitarra eskolak ematen hasi da Álvaro, ortziralean 16:00-18:00 bitartean, eta haur taldetxo bat ere hasia da panderoa ikasten, astearteetan 16:30etik

17:30 bitartean Jaionekin. Azarotik aitzinera gaita ikasteko aukera ere izanen da, Amadeorekin.

ESKULANETAN GANTXILLOA NOBEDADE

Aspaldiko urteetan dabil Pui eskulan ikastaroak ematen Igantzin, eta aurten ere hasia da, astearteetan, 16:00etatik 18:00 bitartean.

Aurten gantxilloa da nobedadea. Argazkian ikusten ahal den bezala, talde kozkorra hasi da ortziralean 17:30etik aitzinera La Villan elkar-tu eta gantxilloa egiten ikasten, Edurneren laguntzarekin.

YOGA IKASTAROA MARINAREKIN

Azken bizpahiru urteotan bezala, aurten yoga egiteko aukera izanen dute herrian. Ohi bezala, astelehenetan izaten da, 17:00-19:00 bitartean, Marinarekin.

HEZKUNTZA SOZIOEMOZIONALA

Ortzegunetan 18:00-20:00 bitartean hezkuntza sozioemotionalari buruzko ikastaroa ari dira egiten 16 guraso Jon Berastegi psikopedagogoarekin, eskolan bertan. Ikastaroa urriaren 19an hasi zen eta bortz astez izanen da, azaroaren 16ra arte.

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

XAGU LIBURUDENDA
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean) 31770 LESAKA
Tel. / Fax 948 638 232

INTERNETEKO EROSKETEN BILKETA ETA ITZULKETA ZERBITZUA

.celeritas
alli donde tu quieras
gaita herriko gaita ikasteko

Amazon
Corte Ingles
Zalando
Fnac
Kiabi
Philips ...

EROSKETAK JASOTZEKO GUNEA

PHL

SUNBILLA

GIZARTEA → URRIAREN 10EAN EGIN ZUTEN BILERA

Eskolako Guraso Elkarteko juntan kide gehiago sartu dira

Juan Tomas Latasak segituko du lehendakari postuan bertze urte batez

Maidar PETRIRENA

Eskolako Guraso Elkartearen ikasturte honetako lehen bilera egin zen urriaren 10ean. Bertzeak bertze, landu behar ziren gaien artean juntako 3 kideren aldaketa izan zen. Oraingo honetan juntatik atera

diren kideak ondorengoak izan dira: Estitxu Arretxea Rodriguez, Joseba Gartzia Agesta eta Ana Gartzitorea Arraztoa. Juntara sartu direnak berriz ondorengoak dira: Bixente Ibarra Ibarra, Aitor Ibarra Mitxelena eta Garikoitz Larraburu Bertiz. Horren ondorioz, honela gelditu da Guraso Elkarteko junta:

- Lehendakaria: Juan Tomas Latasa.
- Lehendakari ordea: Aitor Ibarra Mitxelena.
- Idazkaria: Bixente Ibarra Ibarra.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA


2017/2018 ikasturtean eskolan hasi berri diren 8 neska-mutikoen argazkia. Zutik eta ezkerretik eskuinera: Nahia Bazterrika Larralde, Endara Larzabal Arriola, Eñaut Eraçarret Goñi, Oñatz Korta Gartzia, Yeray Jimenez Etcheverri, Julen Gartzia Sanzberro eta Iraitz Sarratea Arretxea. Eserita berriz Leire Maritxalar Ibarra.

- Bokalak: Garikoitz Larraburu Bertiz eta Amagoia Gragirena Oteiza.

Sartu diren hiru kideak bi urtez egonen dira juntan. Juan Tomas lehendakariari eta Amagoia bokalari, oraindik orain, juntan egoteko urte bat gelditzen zaie.

Ba al zenekien

Ander Gonzalez sukaldari ezagunak gidatzen duen ETB-2ko 'Historias a bocados' programak zenbait herritar grabatu ditu. Aitzinerago aipatuko dugu noiz emanen duten telebistan.



ARGAZKIAK: ARANTXA IBARRA ETA FAMILIAK UTZIA

Esperanza Anzizar eta Miguel Manterola omendu ditu Arkupeak elkarteak

Urriaren 19an Arkupeak elkarteak bazkide eguna ospatu zuen Gorraizen. Omenduen artean, 85 urte bete dituzten bi sunbildar ziren.

Esperanza Anzizar Iriarte: 1932ko martxoaren 15ean sortu zen Pontseneko bordan. 1953ko abenduaren 29an ezkondu zen Oringlabaitako Fermin Ibarra Agestarekin, eta orain dela zazpi urte alargun gelditu zen. Lau seme-alaba izan zituzten, zazpi biloba eta zazpi birbiloba eman dizkiete. Oringlabaita baserrian bizi da, seme, erregina eta bilobekin.

Miguel Manterola Ibarra: Sunbillan sortu zen Arria etxean 1932ko martxoaren 10ean. Oso gazte zenean herritik kanpora lanera joan zen. Ezkondu eta hiru seme-alaba eta sei biloba ditu. Orain Iruñean bizi da baina ez du inoiz bere herriarekin lotura galdu. Asteburuetan bere jatorrizko etxera bueltatzen da.

GIZARTEA → URRIAREN 20AN NATUR PARKEAN

Bidasoa arroa babesteko bertze protokolo bat sinatu dute


‘Nazas del Bidasoa’ Arrantzaleen kluba ibaia zaintzeko eta hobetzeko lankidetzaredu horretan sartu da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu Ingurumen eta Lurralde Andolaketako Zuzendari Nagusi Eva Garcia Balaguer-ek eta *Nazas del Bidasoa* Arrantzaleen Klubeko Martin Urdanoz presi-

denteak Nafarroako Ibaiek Zaintzeko bigarren protokoloa sinatu zuten urriaren 20an Bertizen, Bidasoa ibaiaren ingurua babesten elkarrekin lan egiteko, eta arroko Natura 2000 Sareko eremu babestuen esparruan aritzeko.

Nafarroan egiten den gisa horretako bigarren akordioa da. Joan den abuztuan, Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkartearekin ibaiek zaintzeko lehen protokoloa sinatu zuten, Baztan-Bidasoa eta Leitzarain ibaien inguruko, eta arroko Natura 2000 Sarearen eremu babestuen esparrukoa



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Eva García eta Martín Urdánóz, Life Irekibaiko Jarraipen Batzordeko beste kide batzuekin.

(Bertziko Jaurerria, Belate eta Artikutza).

Ekimena LIFE-IRE-KIBAI Europako proiektuaren barruan sortu da, eta azken urtean Nafarroan egindako arrantzaren partaidetza-prozesuaren ondorioak jasotzen ditu. Bere helburua da herritarrak ibaien kontserbazioan eta hobekuntzan, eta aipatutako arroko Natura 2000 kontserbazio-eremu berezien kudeaketan parte hartzea, Ingurumeneko Zuzendari Nagusi Eva Garcia Balaguerrek protokoloa si-

natu zuen ekitaldian adierazi zuen moduan. Horrez gain, hauxe azpimarratu zuen: «elkarlanean ereduak formalizatzen jarraitu nahi dugu, gure komunitateko ibai-ingurueta proposatzen diren antzeko ekimenetarako suspergarriak izateko».

Ate Zabalduen Egunak ere gogoratu ditu Lesakako Nasara eta Oronoz-Mugairiko piszifaktoriara bisitak egiteko. Horiek, azaroan izanen dira, eta han egiten den lana ezagutzera emanen dute: «Gure

instalazioetan egiten den lana ongi ezagutzea nahi dugu, horrela, gure ibaien ingurumen-errealitatera hurbilduko garelako».

Bertalde, Nazas del Bidasoa Arrantzaleen Klubeko lehendakari Martin Urdanoz Ertitik adierazi zuen elkarrekin interes handia duela Ingurumenarekin lankidetzan aritzeko. «Arras garrantzitsua da guretzat arrantzaleen elkarrekin elkarlanean aritzea eta gure ibaien hobekuntzan parte hartzea», aipatu zuen.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

DONEZTEBE

KULTURA → AZAROAREN 4AN ANTOLATU DU MALERREKAKO GAZTE ASANBLADAK

Ernadi Rock Egunarekin hasiko da azaro mamitsua

Erabakitze eskubideari buruzko mahai-ingurua izanen da goizez eta bazkalondoan elektrotzaranga eta kontzertuak

Marga ERDOZAIN

Ernadi Rock, Esloveniako abesbatzaren emanaldia, Malerreka-ko I. Rally Sprinta, zinea, udazken literarioa, udazkeneko feriak eta Azaroaren 25eko ospakizunek jantziko dute hilabete honetako agenda.

Azaroaren 4an Malerreka-ko Gazte Asanbladak antolatutako Ernadi Rock ospatuko da. Larunbatean, goiz goizetik musika, haurrendako ipuin kontalariak (Santa Luzia plazan). 11:30ean mahai-ingurua erabakitze eskubideari buruz Angel Oiarbiderekin: Euskal Herria, Eskozia, Katalunya. Bazkaria (14:00etan), gazteendako jokuak (18:00etan), elektrotzaranga (19:00etatik aitzin) eta gauean Kontzertuak (Joseba Irazoki, Bide Bakarra, Nekez eta Tirri-Tery).

UDAZKEN LITERARIOA

Azaroaren 10ean Herrigunean eta 11. Udazken Literarioaren barranean Emoziotegia emanaldia burutuko da Ixabel Milletek bideratuta. Emozioak bizitza-



UTZITAKO ARGAZKIA

Esloveniako abesbatzak kantatuko du ortzirean elizan

Esloveniako Komorni Zbor KGBL Ljubljana izeneko abesbatzaren emanaldia azaroaren 3an (ortzirala) arratsaldeko 7etan elizan izanen da. Nafarroako Nazioarteko XXIII Ziklo Koralarren barranean kokatzen da emanaldia. KGBL gaberabesbatza hau 35 kidek osatzen dute. Arreta berezia jartzen dio esloveniako konpositoreen obrak aurkezteari, belaunaldi gazteen lanak barne. Lan horiekin nazioarteko lehiaketetan (Tallinn, Gdansk, Praga...) eta nazioartean arrakasta handia lortu dute. Ambroz Copi zuzendari eta konpositoreak Tine Bec laguntzailearekin batera zuzentzen du abesbatza. Talde honek Tolosa-ko Nazioarteko Abesbatza parte hartuko du.

ren koloreen paleta dira. Emoziotegia pertsona bakarreko ikuskizun bat da, moderno eta oraingoa. Testu ikuskizun horretan, hainbat emoziori dagozkien ipuin eta testuak tartekatzen joaten dira, emozioen munduan zehar bidaia bat egitea proposatuz.

MALERREKAKO I. RALLY SPRINTA

Azaroaren 11n Malerreka-ko I. Rally Sprinta jokatu da, Nafarroako Rally Txapelketa eta Nafarroako Junior Rally Txapelketa-ko baliagarria. Nafarroako federazioak antolatutako ekimena da, Malerreka Motosport taldeak lagunduta. Goiz

Ba al zenekien

Mallerrekako odol emaileek azaroaren 2an (ortzegunean 17:00etatik, 20:30era) eta azaroaren 3an (ortzirean goizeko 9:30etatik 13:00etara) izanen dutela hitzordua. Autobusa osasun zentroaren ondoan jarriko da.

goizetik kotxe zaleak txapelketa horrekin gozatzeko aukera izanen dute.

FERIAK

Azaroaren 17an udazkeneko feriak ospatuko dira (ikus aparteko gehigarria).

ZINEMA DENBORALDIA HASIKO DA

Azaroaren 19an zinema denboraldia hasiko da *Descendientes 2* filmarekin. Hamabortzerok eta sei hilabetez iza-

nen dira emanaldiak, saioiko bi pelikula ikusteko aukera polita izanik. Azken urteetan bezala Erreka guraso elkarteak eta DBHko 4. mailako ikasleek izanen dute emanaldi horien ardurak.

AZAROAREN 25EAKOAK

Azaroaren 25eko ospakizun eta aldarrikapen programak itxiko du hilabete honetako agenda (hurrengo alean zehaztutako emanen ditugu).

FLASH

Hilerriko nitxoak eta kolunbarioak berriak

Kanposatuko toki arazoak moldatzeko asmotan, udalak nitxo eta kolunbarioak paratzeko apostua egin du. Herritarrei aukera hori luzatu die eta azaroaren 22ra arte udal-tertxeko bulegoetatik paratzeko eskatzen die, dagokion dokumentazioa betetzeko.

PEAU

Gune Historikoko Plan Urbanistikoaren behin behineko onarpena eginda (urriaren 30eko bilkuran egin zen) honako ibilbidea izanen du: Nafarroako Boletinean argitaratu da, herritarrek bi hilabeteko epea izanen dute alegazio eta kontsultak egiteko. Ondoren, behin betiko onarpena egiten zaio.

Euskaltegikoak

EGA ikastarorako larunbatetan taldea osatu da, (09:00etatik 13:00etara). Oraindik bada apuntatzeko aukera. Hasiberrientzat ikastaro bat martxan da astelehen eta asteazkenetan 10etatik 12etara. Interesatuak 948 451555 telefonora deitzen ahal dute.

616 513 497

Pittti
ESKABAZIOAK

ESKABAZIO eta GARRAIO LANAK

TIF 948 451 389
Ezpelura, 1 · DONEZTEBE
pitttieskabazioak@hotmail.com

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → MERKATARIEN FEDERAZIOA

Denok Bat Federazioko Giltzariarekin zozketak egiten ari dira

Egunero 30 euro eta astero 200 euro, urriaren 16tik azaroaren 11ra

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako Merkatarikari Elkarteak biltzen dituen Denok Bat Federazioak udazkeneko promozio bat egiten ari da urriaren 16tik aza-

roaren 11ra. Denok Bat Giltzaria txartelarekin erosketak ordaintzen dituztenen artean egunero 30 euroko opari txartela zozketatuko dute eta astero 200 euroko opari txartela.

DenokBat Giltzaria eskaintzen duten edozein saltokitan erabiltzen ahal dira opari txartel hauek, azaroaren 11 bitarte.

Eguneroko zozketa goizean lehenengo or-

duan egingen da. Zozketa horretan, aurreko egunean DenokBat giltzariarekin eragiketa bat egin duten bezero guztiek parte hartuko dute. Asteroko zozketa, berriz, astelehen goizeko lehen orduan egingen da, urriaren 16an, 23an, 30ean eta azaroaren 6an. Zozketa horretan, aurreko astean Giltzariarekin eragiketa bat egin duten bezero guztiek parte hartuko dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Irurritako Mari Jose Alañak irabazi zuen kanpaina honetako 200 euroko lehen saria.

Opari txartelen irabazleei telefonoz deituko zaie. Irabazleak, telefonoz errandako saltokira joan beharko du eta bertan opari txartela aldatzeko kode bat emanen zaio. Argazki bat ere aterako zaio irabazi duen opari txarte-

larekin. Opari txartela ezin da inolaz ere diruz trukatu.

Egunero, DenokBat federazioa osatzen duten elkarten facebook-etan eta DenokBateko web-orrian, irabazleen izenak eta argazkiak argitaratzen dituzte.

1. faseko azken etxe eta lokalak SALGAI!

ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE**

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin

KOKAPENA MOURGUES IBILBIDEA

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortpenean

135.000€tik aurrera
Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170

ITUREN

BESTAK → AZAROAREN 9TIK 12RA

Aurtitzeko San Martin bestek egitarau zabala dute aurten ere

Ortziraleko herri bazkarian Lizaso eta Egaña kantari

Arkaitz MINDEGIA

San Martin bestetako egitaraua prest dute Aurtitzen, lau egunez ongi pasatzeko.

ORTZEGUNA, AZAROAK 9

- 20:00etan Altzaferoa: Beste hasiera emateko. Ondotik kalejira herriko trikitilari eta txistulariekin.
- 22:30ean Mus txapelketa Abarun aterpetxean. Ondotik, gaupasa eginen da, herriko trikitilariak alaiturik.

ORTZIRALA, AZAROAK 10

- 10:00etan Argisoinuak. Ondotik, kalejira trikitilari eta txistulariekin.
- 12:30ean Pilota partida: Elizalde-Bereau; Olaizola I- Olaizola III.
- 14:30ean Herri bazkaria elkartean, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertulariekin.
- Bazkalondoan, Joxe Angel akordeoilariarekin euskal kantuak eta dantzaldia izanen dira.
- Arratsaldez haurren dantza jokuak frontoian.

Gauetz gaupasa!!

LARUNBATA, AZAROAK 11 SAN MARTIN EGUNA

- 10:00etan Argisoinuak. Ondotik kalejira trikitilari eta txistulariekin.
- 11:00etan Meza nagusia.
- 12:00etan Aizkora apostua: Mikel Indakotxea (Palaxio) vs Eneko Saralegi.
- 17:30ean Mendaur trikitixa eskolaren emanaldia frontoian.
- Ondotik berendua izanen da elkartean.
- 21:30ean Kuadrilen aforiak.
- 00:30ean Estu&Larri taldea frontoian.
- Gaupasa Gabenara taldearekin.

IGANDEA, AZAROAK 12 HERRITARREN EGUNA

- 10:00 Argisoinuak. Ondotik kalejira trikitilari eta txistulariekin.
- 12:00 Iturengo dantzariak eta horiendako luntxa elkartean.
- 16:30 Gorriti eta bere animaliak ikusteko aukera frontoian.
- 19:00 Txamukos mari-atxiek dantzaldia frontoian. Bestak akitzeko, Gaixoa Ni.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute bestetako hondar egunean.

URRIAREN 19AN GORRAIZEN

Arkupeak elkarteak omenduak

A. MINDEGIA

Urriaren 19an Arkupeak elkarteak kideek besta haundia izan zuten Gorraizen eta bertan herriko omenduak ere izan ziren. Aurten Manuel Mindegia Garmendia eta Rosalina Elizalde Irazabalek otsailaren 27an 60

urte ezkondu egin zituzten eta azaroaren 8an Segundo Corta Telletxea eta Josefa Endara Endarak 50 urte eginen dituzte. Gorraizen egin zen bestan Segundo eta Josefa omendu zituzten eta egun bikaina pasa zuten familia artean.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Trikitixa eta panderoak 'Bikin batin'

Lesakako Nafarroa Oinezen leloak dioen bezala Mendaur eskolako ikasleek, trikitixa eta panderoarekin *bikin batin* egin zuten pasa den urriaren 15en. Goizeko 10etan hasi eta eguerdira bitarte Oinez ibilbideak animatzen egon ziren ikasleak eta giro ezin hobean pasa zuten Guraso, irakasle eta nola ez ikasleek. Hurrengo saioa Aurtitzeko bestetako trikitixa jaialdian eginen dute, azaroaren 11n.

Ba al zenekien

Azaroaren 3an Pulunpako eskolako ikasle eta irakasleek Bertizko parkera irteera eginen dutela? Bertan hainbat tailerretan parte hartuko dute, taldeka.



ORBELA
SENDERISMOA ALERBETEGIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ZUBIETA



UTZITAKO ARGAZKIA

Izaskun Zubialde eta Bakarne Atxukarro, liburuaren aurkezpenean.

KULTURA → EMAKUMEAK HISTORIAN IZAN DUEN GARRANTZIA ALDARRIKATUZ

Izaskun Zubialdek beste liburu bat argitaratu du

‘Sarerik gabe, historiak emakume izena dauka’ euskaraz eta gaztelaniaz idatzi du, Bakarne Atxukarroekin batera

Fermin ETXEKOLONEA
Izaskun Zubialde herriko idazlea eman kor dabil eta aldi honetan, Bakarne Atxukarroekin batera, *Sarerik gabe, historiak emakume izena* dauka liburua argitaratu du. Oraingo, euskaraz eta gaztelera (Sin red. Historia en femenino) egindako bertsoak eman dituzte argitara Denonartean eta

Cénlit ediciones argitaletxeek. Zubialdek aipatu digunez, «urte eta urteetan, historia egin duten emakumeak egon izan dira, liburuetan agertu ez arren. Honako emakume horiei egindako omenalditoxoa da, baita joandako gaiak hobeak izan zirela pentsatzen duten gazteen kontzientzia piztu nahi bat ere. Ez al-



UTZITAKO ARGAZKIA

Naroa Elizalde Emakume Master Cup-ean

Naroa Elizalde Etxekolonea herritarrak Laboral Kutxa Master Cup pilota txapelketan parte hartzen hasi da. Lau eta erdiaren barrenean eskuz banaka jokatzen den txapelketa honetako kartel ofizialean ere, Elizalderen irudia hartu dute, pilota astintzen. Informazio gehiago www.emakumemastercup.eus webgunean.

Ludoteka abian

Azaroaren 13an abiatuko da ludoteka. Astelehen eta asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara eskainiko da eskola zaharrean eta Uxo Elizalde izanen da monitorea. Orain arte zazpi neska-mutiko apuntatuta daude, baina nahi duena bertara agertu daiteke.

GURE HURRENGO GEHIGARRIETAN PUBLIZITATEA SARTU NAHI?

ERAIKUNTZA Azaroak 16

KIROLAK Azaroak 30

ttipi-ttapa Informatu zaitez 948 63 54 58

EZKURRA

GIZARTEA → MALERREKAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Asteazkenero jubiloteka zerbitzua eskaintzen dute herrian

Urriaz geroztik hamar lagun biltzen dira jubilotekan

Jaione ZABALO

Donezteben, Zubietan eta Sunbillan bezala, Ezkurran ere jubiloteka egitasmoa jarri du martxan Malerrekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.

Ezkurraren kasuan, joan den urriren 4an egin zuten jubilotekaren lehenengo saioa, eta

abendura bitarte asteazkenero elkartuko dira, 10:00etatik 12:30era. Hamar herritar apuntatu dira eta Ramoni Ordoki lesakarra dute gidari. Aipatzekoa da, aski giro goxoa izaten dutela.

Saio bakoitzean bi arlo garrantzitsu lantzen dituzte. Hasteko, helduentzako gimnasiari eskaintzen diote ordu bat inguru eta, gosaldu ondoren, psikomotritate, memoria eta logika lantzeko zenbait ariketa egiten dituzte.

ARKUPEAK ELKARTEA

85 urte bete dituen Ramona Juantorena omendu dute

TTIPI-TTAPA

Bazkidearen Eguna ospatu zuen Arkupeak Elkarteak urriaren 19an Gorraizen, eta hantxe izan ziren herritik joandako 19 lagunak ere. Horien artean zen Ramona Juantorena Mariezkurrena, aurten 85 urte bete dituelako Arkupeak Elkartearen omenaldia jaso zuena. Herri tarrak ez ezik, bere senitartekoez ere ez zuten galdu hitzordua eta oroi-garria hartu ondotik, denek elkarrekin bazkaldu zuten Gorraizen.

Eratsungo Saskille-nea baserrian jaio zen Ramona, 1932ko martxoaren 19an. 14 urterekin lgoara joan zen lanera, baina 1959ko abenduaren 31n Juan Bautista Zabalo Telletxearekin ezkondu zenean, Ezkurako Mikelenea etxera joan zen bizitzera. Hantxe bizi da geroztik. Hiru alaba izan zituzten, eta gaur egun, lau biloba eta lau birbiloba ditu Ramonak. 63 urterekin alargun gelditu zen eta bi alabekin, suhiarekin eta bi bilobekin bizi da.



ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Aski tarte atsegina pasatzen dute Ramoni Ordokirekin herriko jubilatuek.



ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Kultur Birari esker egun ederra

Malerrekako Kultur Biraren baitan, urriaren 14an, DJ Porruk haurrendako ikuskizuna eskaini zuen frontoian eta jende asko bertaratu zen. Gauean, berriz, triki-bertso afaria izan zen Barranka ostatuan. Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariak hainbat herritarren masailak gorritu zituzten. Oihana eta Oihana musikariak arduratu ziren alaitzeaz eta giro ederra sortu zen. Afaria berandu arte luzatu zen eta umore ederrean amaitu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ramona Juantorena omenaldi egunean, alaba, biloba eta bilobez inguratua.

Azaroaren 17an ospatuko dituzte udazkeneko feriak

Urte luzeetako tradizioari jarraiki, aurten ere, Doneztebeko feriak ospatuko dituzte San Martin ondoko ortziralean. Goiz goizetik, nekazari, abeltzain eta abere zaleentzat, begiak asetzeko, tratuan ibiltzeko edota lanabesak probatu eta erosteko hitzordu garrantzitsua da Merkatu Plazakoa. Herriko karrika eta xoko guztiak ere postuz beteko dira, eta beraz, hurbiltzen denak eskualdeko jaki gozoak dastatzeko, arropak probatu edota erosteko... aukerarik ez du faltako. Arratsaldean, berriz, maila nagusiko aizkora txapelketa finala jokatu da, Ezkurra frontoian. Bien bitartean, gaiteroen musikak alaituko ditu bazterrak.



Arozena
ostatu · jatetxea

ongi pasa feriak!
T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE

MALE REKA
KUSTOM

KAMISETAK TXAPELAK
PAÑULUAK BORDATUAK

Gure diseinuak eta pertsonalatuak!
ONGI PASA FERIAK

Bertako produktua, etxekoa, hurbilekoa!!!

Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190
male-reka@male-reka.com · Male-Reka

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA



TELEFONOA ETA FAXA • APARKALEKUA • KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
TABAKO SALMENTA • LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK
ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

ONGI PASA!



Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

EROSKI city

ongi pasa feriak!!

T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8 · DONEZTEBE



Mendiburu
aziendak · tratantea

ongi pasa feriak!

608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE



Mailposta

PUBLIZITATE BANAKETA / INPRIMATEGIA

EGUTEGIAK / TXARTELAK / KARTELAK / ORRI MUTUAK
KARTAZALAK / FOILETOAK / TALONARIOAK / BOLETOAK...
INPRIMITZEN DITUGU.

FOILETOAK / KARTELAK / EGUTEGIAK...
BANATZEN DITUGU.

(0034) 686 747 713
(0034) 648 847 167

Arribilagako bidea, 55 · 31793 NARBARTE (Na)
www.mailpostabuzoneos.com



Ford

ONGI PASA FERIAK!



EGUN OSOKO BESTA

Guztien nahiak edo beharrak asetzeko aukera zabala Doneztebeko ferietan

Urteroko azienda eta postuak ez ezik, Nafarroako I. mailako aizkora txapelketako finala izanen da ferietan

Gaztain, talo edota etxean eginiko bertzelako jaki gozoak dastatuz, jantziak probatuz... ibiliko dira herritar eta ingurukoak Doneztebeko ferietan. Aukera zabala izanen da, 200 postutik goiti paratuko baitituzte goizean goizetik iluntzera bitarte, karrika xokoetan. Zenbait aldaketa ere badakartza aurtengo hitzorduak. Izan ere, aitzineko urteetan ez bezala, euskal oiloak izanen dira merkatuan eta behor txapelketa egiteko asmotan ere badabilta. Azkenik, azpimarragarria da, Doneztebeko Udalarrentzat diru-iturri ere badirela feriak. Izan ere, 4.000 eurotik goitiko diru-sarrerera izaten du egun horretan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Jende andana bilduko da karriketan.

NAFARROAKO MAILA NAGUSIKO AIZKORA TXAPELKETAKO FINALA

Goizeko giroari jarraipena emateko eta guztien zaletasunei tarte egiteko, aizkora apustu zaileentzat hitzordu polita antolatu du Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Nafarroako maila nagusiko aizkora txapelketako finala izanen da ikusgai, Ezkurra frontoian. Iker Vicente otsagabiarrarekin batera, eskualdeko Ruben Saralegi (26 urte) eta Jon Rekondo (32 urte) leitzarrek, Mieltxo Mindegia (36

urte) zubietarrak eta Joxean Etxeberria (22 urte) zigarrak lortu dute finalera sailkatzea. Lau kanardiko, 60 ontzako bertze lau eta bi oinbiko moztu beharko dituzte bortz finalista sailkatuek. 18:00etan hasiko da finala eta sarrerak egunean bertan izanen dira salgai, 15 eurotan. Hala ere, ez da arratsaldeko ikuskizun bakarra izanen. Aizkolarien ondotik, harri-jasotze erakusketa izanen da, Aimar Irigoienen eskutik.



Aizkora apustuaren ondotik, harri-jasotze erakustaldia izanen da.

Sampi Aragón S.A

Zonaldeko Ford zerbitzu ofiziala

Ford markako ibilgailuentzat zerbitzurik osotuen

T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com

Jose Luis Urtxulutegi | Betimuga factoryko kidea

«Aurten hasi gara *ready made* estiloarekin lanean eta jendea harrituta dago»



Anitz dira feria egunean ikusten ditugun artisauek doneztebarrak, anitz ikusten ditugun artelanak... Oraingo honetan, ordea, Jose Luis Urtxulutegik, Betimuga Factoryko kidea den doneztebarrak, arte estilo baten berri eman digu: *ready made* deritzona. *Ready made* «XX. mende hasieran Estatu Batuetan Marcel Duchamp-en eskutik sorturiko arte-estiloa da». Horren sorkuntzak arte ikuspegiaren iraultza eragin zuen gizartean, «ordura arte, eskultura, arkitektura eta pinturara lerratzen baitzen artea». Iraultzaren ardatza burua astinduz aurkitutako gauzei ordura arte eman ez zitzaion zentzua eta erabilera ematean laburbiltzen da: «gau-

«Burua astinduz gauza industrialei, egunerokoei edo aurkitutakoei ordura arte eman ez zaion zentzua eta erabilera ematen diegu».

zok industrian edo egunerakotasunean erabiliak izaten ahal dira, egokituak ala ez, baina bere testuingurutik ateratzean, funtzioa aldatzean dago gakoa». Aurten hasi da Urtxulutegi halako proiektu batean: «betidanik gustatu izan zaizkit museoak eta eskulanak baina orain, bertzeen arrimuan, sortu zait honetarako aukera». Ordu luzez lan eginagatik, lantdatutakoaren uzta jasotzen ari omen dira dagoeneko. Irailaren 23an hasi zen erakustaldia, Zugarramurdiko Sorginen Museoan eta jende anitz hurbildu da geroztik. Guztiak «harrituta ateratzen dira». Eguberriak arte esku zabalik hartuko omen dituzte bisitariak.

SALDIAS HARATEGIA

Bertako haragi freskoetan espezializatuak
Etxeko txistorra

Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE

Bar Amekia
Ostatua

ZERRIKUME ERREA ENKARGUZ

Bertan jateko
Entsalada eta ogiarekin
75€
Eramateko
65€

T. 948 450 028
Doneztebe

ETXEKO ESPEZIALITATEA

miren elorza
"Etxeko ekoizpena"

CARNICERÍA | HARATEGIA

ETXEKO PRODUKTUEN ATALA:
tripakiak, txuri-beltzak, txistorrak, saltxitxak, hamburgeresak, enpanatuak, kroketak...

ENKARGUAK ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

ONGI PASA FERIAK!!

Miren 620 570 049 · 948 450 040
Merkatarien karrika, 12 · DONEZTEBE

ALTIXUNEA ERRETEGIA

IREKITA
ostiral eguerditik igande eguerdira,
besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 · ITUREN
T. 948 450 410

Mendaur Motor

Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura

ongi pasa feriak!

Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
costiz@telefonica.net

CASA OSTIZ
ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA

ZURE BETIKO DENDA ORAIN ON-LINE ERE:
www.libriercasaoostiz.com




**FERIETAN
ZURE GOSARI ETA
BAZKARIAK
ARIZTIGAIN**
kanping-jatetxean!!

OSPAKIZUNETARAKO
MENU BEREZIAK
(Jaunartze, bataio, familia bazkariak...)



SUNBILLA | 948 450 540 | www.campingariztigain.com

TABERNA ZAHARRA

UDAZKEN-NEGUKO MODA
Gizon eta emakumeendako arropa-denda

Gortinak eta etxerako arropak (mantak, maindireak...)

Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007



EDERKI tailerra

CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
ongi pasa feriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525






Tiburtzio ARRAZTOA I Laxoa elkarteko lehendakaria


«Laxoak belaunaldiz belaunaldiko transmisioari esker iraun du»

Lurritako sorterria utzirik, duela 43 urte inguru jo zuen Doneztebera Tiburtzio Arraztoak. Edonola ere, herri batetik bertzera jotzeak ez zuen hain bere sentitzen zuen kirolarekiko atxikimendua lausotu. «Joko zuzeneko pilota mota guztiak» maite ditu, «bereziki, laxoa». Laxoa «ondare kulturala da, kirola eta kultura uztartzen dituen» da berarentzat, «hurbiletik zaindu beharrekoa».

TRANSMISIOAREN GARRANTZIA

Jesus Jaimerena apaizak, antolaketa buru-belarri jarduten zuenak, bere zaletasunean izan duen eragina gogoan izanagatik etxeko transmisioaren garrantzia nabarmendu du: «nire aitak zaletasun handia zuen eta hiru anaiok zaletasun horretatik edan dugu. Orain nire semea ere aritzen da». Jarraipena izan omen da, bere ustez, kirol honetan iraupenerako gakoa: «laxoak iraun badu belaunaldiz belaunaldi igaro delako izan da».

Lehenengo oroitzenak eskola garaiko atsedendaldi eta arratsaldetakoak dira «plazan edo frontoian egoten ginen, beti pilota eskuetan genuela». Halere, ezin erran gogoan dituenak horiek baino ez direnik. Izan ere, 1979. urtetik, laxoa berreskuratu zenetik, udan egin ziren Doneztebe eta Arraiozen arteko lau partidetan parte hartu zuen. 80ko hamarkadan, berriz, zazpi bat urtez, torneo eta txapelketetan ibili zen Doneztebeko taldearekin, bitan garaipena lortu zuelarik. Area-go, oraindik orain, jarraipena bermatze al-



UTZITAKO ARGAZKIA

Tiburtzio Arraztoa, azken liburua eskuratu duela.

dera, lanean dabil, ttikienekin jolastatzeko edo etsegetarako tartetxoak hartuz: «hurrekin ibiltzen naiz, erakusten edo entsegutan».

LIBURUAREN BEHARRA

Izenak izana dakarelako pilotaren historia irudi eta letretara pasatzen ere lan handia egin du Tiburtzio Arraztoak. Horren lekuko dira, bertzeak bertze, laxoaren inguruan eginko bideoa eta idatziriko bortz liburukak: Laxoaren gida (2003); Guante laxoa, la modalidad más antigua de la pelota vasca (2004); Laxoa la pelota en la plaza (2010); Entre Dios y la pelota (2014); eta Doneztebe pelotari (2017). Azken hori luzaroan buruan bueltaka zuen ideia zen, «herri eta pilota elkarte batzuek

beren pilota liburua duten antzera, Doneztebek ere behar lukeela pentsatzen nuen». Donezteberen pilota munduko historia aberatsa bilduz osatu du liburua. Horretarako, etxeko apalategietako liburuei hautsak kentzeaz gain, informazio iturri anitz arakatu behar izan ditu: «Donezteboko Udaleko arxiboa, liburua, egunkariak, aldizkariak eta internet». Baina, zalantzarik gabe, «politena eta aberatsena jendearen ekarpenak izan dira: anitzek argazkiak utzi dizkirate, eta argazkiek maiz hitzek baino gehiago balio dute». Hemezortzi kapitulutan pilotaren modalitate guztiak biltzen dira, «nik guztiak probatu ditut». Halere, «bakoitzaren presentzia eta pisuaren arabera» luzera hagitz aldakorra da. Dударik gabe laxoak izan duen itzala islatzen da liburuaren ere, hari dagokion kapitulua «mardula» da. Bertzeak xumeagoak izanagatik, ez da bilduriko modalitate bakarra: «pala, erremontea, errebotea, paxaka, boteluzea...».

«Iturri anitzetatik edan dut baina beti erranen dut, ekarpen polit eta aberatsenak jendearenak direla».

Modalitateak ez ezik, Donezteboko Bear Zana plazaren historia ere badakarki Arraztoak azken lanean. Izan ere, Bear Zanaren sorreratik, hau da, 1855etik, «moldaketak egiteaz gain, pilotalekuaren erabilera ohiturak ere aldatu izan dira». Bertzeak bertze, azaroko feria egunetan laxoa partidak jokatu izan direla aipatu digu: «XX. mendeko lehen hamarkadan baziren laxoa partidak eta orain dela hogeita bortz bat urte ere antolatu genuen

«XX. mende hasmentan Donezteboko ferietan laxoa partidak jokatzeko ziren».

ikuskitzenen bat». Gaur egun, «pentsaezina» da halako zer-bait antolatzea, «postuz betetzen baita plaza». Liburuan murgildu ahala, «horren ezagunak ez diren bitxikerien» berri izan dezake irakurleak, «1930ean plazan egin zen erreboterako pareta mugikorraren, 90 gradu mugitzen zenaren, berri topatuko du», erraterako.



MUNDUKO LAXOA TXAPELKETAK

Doneztebek laxoaren historian izan duen garrantziaren lekuko, Munduko Laxoa Txapelketak aipatu dizkigu: «Nafarroan bitan izan dira laxoa txapelketak, 1962an eta 2002an. Batean zein bertzean txapelketetako partidak ikusteko aukera izan dugu Donezteben. Areago, Nafarroan Iruñea eta Donezteben baino ez da izan aukera hori».

ESKULARRUGILEEN LANA

Laxoaren bueltan eginiko lan handia jokalari eta entrenatzaileez gain, XIX. mendetik denbora eta pazientzia izugarri jardun duten eskularrugileena ere badela nabarmendu nahi izan du Arraztoak: «artisauro lan hau mantendu bada, hein handi batean, Donezteboko eskularrugileei esker izan dela erranen nuke». Hortaz, «XIX. mendeko azken hamarkadetako eta XX. mendeko hasmentan eginiko eskularru kopurua, kostua eta bertze ere bildu nahi izan dut». Egun, bai herriz herri, eta baita herrian berta ospartzen den Santa Luzia eguneko ferian ere, bada lana «eskertu eta hurbiletik ikusteko» parada.

CTV
ONGI PASA FERIAK

Rosa Seminario, 15 DONEZTEBE
T. 948 450 591 M. 659 884 374
ctveterinario@telefonica.net
www.veterinariaostiz.com

Sampi Aragón

TALLER ESPECIALIZADO SEAT VW Audi

ONGI PASA FERIAK

Sampi Aragón S.A

MARKA HAUETAN ESPEZIALISTAK
Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura
Audi SEAT VW

T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com

2017KO UDAZKEN-NEGUKO ESKAINTZAK

STIHL

EZ DUT EZERGATIK ALDATUKO
(SOILIK BESTE STIHL BATEN TRUKE)

MOTOTERRAK RENOVE PLANA 150€
EZ GARNE ARTE

BAKARRIK ZURE DENDA ESPEZIALIZATUAN
Ekitza eta eskaintza baliagarriak 2017/11/22ra arte

José Luis San Miguel

Merkatarien zeharkarrika, 11 DONEZTEBE • 948 45 07 11
www.joseluisanmiguel.com

goldea
Gallera s.l.l.

ONGI PASA FERIAK

Landini VALPADANA

Tel./Faxa: 948 450 060
goldeatallerra@gmail.com
Aparan Ind., 3
31740 DONEZTEBE

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 • F. 948 580 648
www.zergalan.es | info@zergalan.es

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 • F. 948 451 304
www.asegi.com

ARKUPEAK

GIZARTEA → URRIAREN 19AN

650 lagun bildu dira bazkidearen egunean

Benidormera
64 bazkide
joan dira

Fernando ETXEBERRIA

Urriaren 19an ospatu zuten Arkupeak Elkarteko bazkideen eguna Gorraizen. Omendurak, beren familiak, bazkideak eta gonbidatuak elkartu ziren, guztira 650 lagun bildu zirelarik.

Eguerdian meza izan zuten, eta urtean zehar hildako bazkideen oroimena egin zuten. Era berean, Pakita Mikelarenak bertso batzuk kantatu zituen, bai hildakoen oroimena egiteko, bai eta egunean

bertan omendutakoak zoriontzeko ere.

Ondotik, Jose Luis Legarrak omendutakoen artean joaterik izan ez zuten Felipe Ganboa, 25 urtez elkarteko buru izan zena, eta Isabel Mitxeltorena, 12 urtez idazkari izandakoa, orotarazi nahi izan zituen. Horrela, bi langileon oroimena eginez, egun, elkarteak duen partaidetza, 2.500 bazkideetik goitikoa, hein handi batean, beren lanaren ondorio izan dela nabarmendu nahi izan zuten.

Bide batez, aurten go jarduera garrantzitsuenen aipamena ere egin zuten: 3.120 bazkidek eginiko 21 bidaiak; 320 lagunek eginiko 10



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Goitian Getaria eta Zarautzen izandako erretiratuak; beheitian, berriz, Benidormen ibiliak

mendiirteerak; 350 ikasle parte hartutako 18 ikastaroak, kasu. Horrez gain, diru-laguntzen igoera, loterian izaniko zortea eta jubiloteken zein Leitza, Doneztebe eta Elizondoko erakusketen berri eman zuten.

Lehiaketako sariak eta omenaldiko opariak banatu ondotik, Gorraizen bazkaldu zuten.

Bazkalondoa alaitzeko Josean eta Kristian musikariak ere izan zituzten.

Benidorm bidaia

Urriaren 5ean elkarteko 64 bazkide Benidormera joan ziren. Hamairu eguneko oporraldia, erlaxatzeko ez ezik, ateraldak egiteko eta eguzkiaz gozatzeko aprobetxatu zuten.

Getaria eta Zarautzera irteera

Urriaren 11n Getariako Balenciaga museora joan ziren elkarteko 41 kide. Goiza museoan pasatu ondotik, Zarautzera joan ziren bazkaltzera. Arratsaldean, batzuek Argiñanoren jatetxera bisita egin zuten, bertzeak, berriz, malekoian barna pasaoan ibili ziren.

ELKARTEKO LEHIAKETETAKO SARIAK

Literatura, argazkigintza eta margogintza lanak

Literatura alorrean, euskaraz eginiko narrazio hoberearen saria Miren Itxaso Lizarragak irabazi zuen, *Hiata-Huata* lanarekin; bigarren saria, berriz, Maite Irigoienentzat izan zen, *Amatxiren ondarea* narrazioarekin. Poesiei dagokienez, Pakita Mikelarenaren *Bertsoak 2017* izan zen garaile. Gaztelaz egindako lanen artean, Paco Pascualen eta Blanca Bertzen lanak saritu zituzten. Azken horrek, gaztelazko poesiarri zegokion saria eta argazkigintza alorrekoa ere irabazi zituen. Argazkigintza arloan bigarren saria Margarita Mecorentzat izan zen.

Azkenik, margogintzan, Milagros Estebanen *El estanque de Bertizeta* Mari Puy Luquinen *Camino de Santiago* lanak izan ziren aukeratuak, hurrenez hurren. Epaimahaia Ana Mari Marin eta Juan Carlos Pikabeak osatu zuten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mendi irteera Artikutzara

44 mendizale bildu ziren urriaren 17an. Eskasen hasi eta Burnaiztegi, Elutxa, Almenduritz, Pagolleta, Izu eta Artikutzan barna, bueltan-bueltan, ailegatu ziren ibilaldia hasi zuten tokira. Bortz orduko ibilaldia egin ondotik, Oiartzungo Tolare jatetxean bazkaldu zuten.

GIZARTEA → AZAROAREN 7AN

‘Goizuetan lan eta bizi’ lehen jardunaldia egingen dute

Maingeneko Juanjo Elizalde eta Basaburuko Ernaitzu Kooperatibak esperientziak azalduko dituzte

ka da “Goizuetan lan eta bizi”. Urte osoan zehar noizean behin egingo diren hitzaldi eta mahai inguruek osatzen dute dinamika hau eta helburua, beste esperientzia batzuetatik ikastea izango da.

Lehenengo hitzordua azaroaren 7an egingen dute, astearte arratsaldean, 6:30ean udaletxeko ganbaran. Hitzaldira bi esperientzia ekarriko dituzte. Bata, herrikoa izango da, Juanjo Elizalde Maingenea arrautza eta betizu-haragi ekologikoaren berri emanen du. Bestea, Apeztegiherria denda, Orokietako ostua eta Escape Room-a kudeatzen duen Basaburuko Ernaitzu kooperatiba izango da bere esperientzia kontatuz.

TTIPI-TTAPA

Herriko Etxebizitza Batzordeak sortu zuen etxebizitza eta lokalei buruzko inkestan, etxebizitzaren gaia lantzeaz gain, “Nola hobetu Goizueta bizileku bezala?” gaia ere landu zen. Emaitzetan, batez ere, herriari lan falta zegoela azpimarratzen zen.

Gabezi horri erantzuna eman asmoz, Udalak eta Cederna-Garalur elkarteak elkarlanean sortu duten dinami-

FLASH

Jubilatuena Eguna asteburuan

Azaroaren 4an, larunbatean 16:00etan truk eta mus txapelketa jokatu dute Umore Ona elkartean. Igandean 11:00etan Meza, ondoren pilota partidak eta 14:00etan bazkaria izango dira; bazkaldoan, berriz, musika Ainhoa Zabaletarekin.

Sukaldaritza ikastaroa

Umore Onak antolatutako sukaldaritza ikastaroa egingen da azaroaren 15, 22 eta 29an, 18:00etatik 20:00etara, Fagollaga jatetxeko Maria Angeles Huijiren eskutik. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 35 euro.

Umeentzako yoga

Urriaren 27ko doako klasearen ondotik, azaroaren 10 eta 24an eta abenduaren 15 eta 29an, 17:30etik 18:45era eskainiko dute udaletxeko ganbaran.



UTZITAKO ARGAZKIA

Domiñako Maite Sanchez saritua

Betizu arrazako behiak hazten dituen Domiña azienda-ustiategiko Maite Sanchezek jaso du landa-eremuetako emakumeei bideratutako Nekazaritza-jarduerako berrikuntzaren bikaintasun saria. Espainiako Nekazaritza Ministerioak deitutako saria urriaren 19an jaso zuen Madrilan.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Gasolindegia irekia inaugurazioa

Irailaren 30etik irekia egon den arren, urriaren 13an egin zen Goizukoop kooperatibak bultzatutako gasolindegia irekiera ekitaldia. Bazkide eta bazkide ez diren hainbat herritar agertu ziren, baita abesbatza eta dantzariak ere.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Onako atalen eguna

Umore Ona elkartearen atalek bere eguna ospatu zuten urriaren 21-22an. Umore Ona eta herriko gazteen arteko areto futbol partida, pilota partidak, Umore Ona Abesbatzaren eta dantza taldearen emanaldiak eta bazkaria izan zuten.

LEITZA

GIZARTEA → HAMABOSTERO, ASTEAZKENETAN

60 urtetik gorako emakumeak ahalduntzen

Oraindik ere izen-emateko aukera dago

JM BARRIOLA

Udazkenarekin batera, aurten ere, joan den urtean sorturiko 60 urtetik gorako emakume taldea elkartzeko hasia da, asteazken arratsaldetan, hamabostero, bi orduz. Taldearen helburua emakumeen ahalduntzea lortzea da.

Topaleku polita aurkitu dute, beren bizipenak trukatzeko, sentimenduak azaleratzeko, elkarrizketa eman eta entzuteko. Hasiera hasieratik talde lotua izan da, eta orain, gai askoren inguruan konfidan-

tzaz hitz egin eta sakontzeko tailerra eginen dute. Besteak beste, bakoitzaren burua hobeto eza-gutzeko tresnak lantzeko, bakardadeari aurre egiteko baliabideak eza-gutzeko, harremanen kalitatea eta mugak jorratzeko, gorputza ezagutzeko... aukera izanen dute. Tailerra, Maite Blacok, psikologoa eta genero adituak, zuzenduko du.

Bigarren edizio honetan, 12 emakume eman dute izena, lehengo urtean baino herritar gehiago animatu dira. Talde irekia da eta oraindik badago lekua, beste emakume batek parte hartzeko.



Ba al zenekien

Gizarte Zerbitzuak 8 hilabetetik beherako umeei masajeak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Azaroaren 8an hasiko da, udaletxeko lehenengo solairuan eta asteazkenero, 11:15etik 12:15era bitarte izanen da. Izen-ematea: 948 510840.

LAN ESKAINTZA

Leitzako Oialde Txoko gazte gunean begiraleak behar dira

Leitzako Oialde Txoko gazte gunean urritik apirilerara, 17:00etatik 20:00etara bitarte, igandetan lan egiteko begiraleak behar dira. Egiteko dagokienez, programazioak planifikatu edota gazteekin osatzeaz, sorturiko ideiak antolatzeaz, eta harreman hezitzailea eskaintzeaz arduratu beharko dute begiraleek. Interesdunek honako telefono hauetara dei edo idatz dezakete: 948 510840/ 681265188.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Hamabi emakumek eman dute izena.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Aurrera elkarteko eguna ospatu zuten

Urriko lehendabiziko larunbatean ospatu zen eta egun osoko egitarau zabalaz gozatzeko aukera izan zuten. Hainbat kirol jarduerak egin baziren ere, eskaladaren falta somatu zuten gaztetxoek. 160 lagun bildu ziren musikak alaituriko herri bazkarian. Antolatzaileek balorazio ona egin dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erreka garbitzeko auzolana

Urriaren 12rako Leitzaran erreka garbitzeko auzolan deialdia egin zuen Udalak eta 25 bat lagun elkartzu ziren. Garbitze lanekin batera, kontzientziazio lana egin zuten. Aurreko urtean baino zabor gutxiago bildu bazuten ere, oraindik zer egina badagoela agerian geratu zen.



Pertsonaia
Alex MUGIKA

Zartagina eskuan eta txapela buruan

Urriaren 18an Nafarroako Kaxuela eta Ardoaren XVI. Asteko saria irabazi zuen Alex Mugika leitzarrak, Bildots albondigak izeneko kaxuelarekin. Nafarroa osoko 46 jate-txe aurkeztu ziren eta La Cocina de Álex Mugika, leitzar sukaldariarena, saritu zuten. Epaimahaia Alhambra jate-txeko Javier Diazek, Nafarroako Jatorrizko Izendapeneko ardoen Kontseilu Erregulatzailerako presidentea den David Palaciosek eta Legasako Arotza jate-txeko Luismi Lacar sukaldariak osatu zuten. Garaipenaren ikur, diploma jasotzeaz gain, Arantza hotelean gau bateko egonaldiaz gozatzeko aukera izanen du. Sari nagusiaz gain, Sandúa olioarekin egindako kaxuela onenaren saria ere jaso zuen sukaldari leitzarrak. Ez da Mugikak sari hori irabazten duen lehendabizikoa aldia, ez eta zartagina eskuan irabazitako sari bakarra ere. Nafarroako kaxuela txapelketa hirutan irabazteaz gain, 2015ean Euskal Herriko pintxo txapelketa irabazi zuen Mugikak eta iaz Espainiako txapelketan txapel-dunorde izan zen.

GIZARTEA → 10:00ETATIK 14:00ETARA BITARTE

Leitza eta Aresoko produktuen azoka azaroaren 12an



JM BARRIOLA

Leitzako Udala eta LeitzEKO kontsumo taldearen eskutik, Leitza eta Aresoko produktuen azoka egingen da azaroaren 12an, Leitzako plazan (eguraldi txarra egin ez gero frontoian). Aurreko bi urteetan arrakastatsua izan zen ekimena, bai parte-hartzaileen aldetik, baita herritarren aldetik ere.

Guztira 30 parte-hartzaile espero dira. Ani-

malia eta hegaztien erakusketaz gainera, udazken sasoiko produktuez osatutako salmenta postuak egonen dira: barazkiak, gazta, babarrunak, ezta...

Azoka horren helburu nagusia bertako produktuei eta ekoizleei dagokien balioa eta lekua ematea da. Hala, herritarrek bertako produkturak kontsumitzeko ardurara hartuz, guztion onerako izan den elikadu-

ra eredu bat eraiki nahi dute.

LEITZA KONTSUMITUZ

Azken urtean, dinamika ugari jarri dira martxan elikadura burujabetza eta bertako produktuen kontsumo, ekoizpen eta salmenta bultzatzeko asmoz; Leitza Kontsumituz, kasu.

Leitza Kontsumituz prozesuaren helburu nagusia, hainbat eremutan egiten ari ziren hausnar-

keta eta ekintzekin bat eginez, Leitza zein Aresorako prozesu parte-hartzaile bat osatzea da. Orain artean eginiko bilkuretan, Leitza eta Aresoko galdeketeak eta ikerketek emandako emaitzen inguruan hausnartzeko, 50 bat lagun bildu dira. Azken urratsa azaroaren 2an egitea aurreikusi dute. Hala, azoka bezperarako osaturik eta jendeartean zabaltzeko prest egonen litzateke.

LABORANTZA

PROIEKTUAK EZAGUTZEN

Urriaren 21ean Leitzeko Kontsumo taldeko hainbat kidek eta Leitza eta Aresoko Udaletako ordezkariak Euskal Herriko Laborantza Ganbarako proiektuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Ainhizen jaso zituzten proiektuaren inguruko xehetasunak eta hainbat etxalde bisitatzeko aukera ere izan zuten.

EN plus A1
ES 025

BEROPEL

egurrezko pelletak

ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

ARESO

GIZARTEA → URRIAREN 10EAN

Udazkeneko ohiturei eutsiz, gaztainak biltzera

Urriaren 10ean bildurikoak aski ez eta urriaren 17an berriz ere joan ziren gaztain bila

TTIPI-TTAPA

Urriaren 10ean, saskiak eta motxilak hartuta, mendirako bidea hartu zuten Nazabal eskolako ikasle eta irakasleek gaztainak biltzera joateko. Orduan bildutako gaztainekin nahikoa ez eta, astebetera, urriaren 17an, gurasoek lagunduta, berriro ere aritu ziren gaztainak biltzen. Ale ederrak topatu omen zituzten Errandoneko Borda inguruan. Ondotik, danbolinak dantzan ere jarri zituzten eta goxo-goxoak omen zeuden.

Aska berriak

Abeltzainei euren egunerokoan laguntzeko asmoz, aska bat jarri eta beste bat txukundu du Udalak. Arrozpide eremuan, Garrokomendi belaze azpian jarri dute aska eta Altzeiko iturrian aurretik zegoena moldatu dute ondoan beste bat gehituz, aziendek nahiko ur izan dezaten.

Hirigintza plana

Prada arquitectura enpresa arduratuko da hirigintza-plana osatzeaz. Hiru enpresek aurkeztu zituzten proposamenak eta beraiena izan da aukeratutakoa, lizitazio prezioari %30eko jaitziera eginda, 49.000 euroren truke egingo dituzte eta lanak. Lehenbailehen hasiko dira lanean.



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO ETA JAIONE OLAZABAL

Gaztain bila atera ziren Nazabal eskolako ikasle eta irakasleak.



ARGAZKIA: ANTSOINGO HERRI KIROL TALDEA

Itxaso Onsalok irabazi du Nafarroako trontza mistoko txapelketa

Mikel Eugirekin bikote osatuta, beste behin ere, garaipena eskuratu du Itxaso Onsalok herritarrak. Urriaren 22an Beran jokatu zen Nafarroako txapelketan edeki aritu ondotik, bigarren urtez segidan, irabazi zuten txapela. Gainera, ez da izan aurten lortu duten garaipen bakarra, abuztuan Euskal Herriko txapelketa ere irabazi baitzuten.

LEITZA

Patxi Astibia aizkolariari liburua eta omenaldia

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 3an, ostiralean, arratsaldeko 7etan Patxi Astibia aizkolari liburua aurkeztuko dute Leitzako udalletxean. Biharamunean,

hau da, larunbatean, ordu berean, omenaldia ere egingen diote, Amazabal fontoian. Leitzako Udalak bi ekitaldiotan parte-hartzeko gonbidapena luzatu du.

Aurkezpen eta omenaldi horren bidez, Udalak leitzar aizkolariak 16 urtetan hasi eta 34 urteak bitarte eginiko ibilbide oparoa goraiatu nahi du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Astibia aizkolaria.

Ipar Euskal Herriko ikastetxeen aldeko pesta

Azaroaren 25ean, larunbatean, Urruñako Ikastolaren eta Pierres Larzabal kolegioaren alde egun osoko pesta ospatuko da. Besteak beste, kantubazkaria eta L'arcusgi taldearen kontzertua izanen dira.

GIZARTEA → AZAROAREN 3AN INAUGURATUKO DUTE ETA ASTEBURU OSOAN EKITALDIAK PRESTATU DITUZTE

Erabilera askotariko areto bihurtu dute garai bateko maistraren etxea

Ostiralean bertso saioa, larunbatean dokumentala eta igandean Mikel Markez eta Eñaut Elorrietaren emanaldia Maisuenean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendi buelta azaroaren 11n

Azaroaren 11rako, dagoeneko ohitura bihurtu den mendi buelta antolatu dute goizean. Aurten, berriro, Iñaki Garijo zahoria izango dute bidelagun. Ilunabarean, berriz, urteroko talo eta gaztain jatean elkartuko dira herritarak.

Ainhoa ANSA

Maisuenea, garai bateko maistraren etxea zena, erabilera askotariko areto bihurtu du Udalak Cederna Garalurren bitartez eta Europako Leader eta Feader fondoan diru-laguntza bat baliatuz (PDR bezala ezaguna).

Azaroaren 3an, arratsaldeko 7etan inaugu-

razio ekitaldia antolatu dute, kulturekintzaz betetako urte bukaera bati hasiera emanez.

Arratsaldeko 7:30ean punta-puntako bertso saioa izango da, Aitor

Mendiluze, Unai Agirre, Eli Pagola, Agin Labururen eskutik. Aurkezle lanetan Maider Ansa herritarra ariko da.

Larunbatean, azaroak 4, arratsaldeko 7etan,

Burbunaketa etsaiak dokumentala emango dute, dokumentalaren egileetako batzuk. Talde zabal baten partaide, tartean aritu ziren Joxan Ruiz eta Jon Mari Bea-

sain grabaketa eta muntai lanetan eta Iñaki Sanz biologoa ere Maisuenean izango dira.

Azaroaren 5ean, igande arratsaldeko 5:30ean Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta musikariak ariko dira Maisuenean. Igandeko saio hori Iparraldeko euskara mankomunitatearen bitartez antolatu da.

Azaroan eta abenduan ere izango dira ekitaldi gehiago, eta zerbait antolatu nahi duen herritarra udaletxera zuzendu daiteke egutegian eguna eta ordua zehaztuz.

Izan ere, hauxe da Maisuenearen helburuerako bat: herritarren elkartasuna izatea eta herritarrentzat interesgarriak izan litezkeen ekintzak bideratzen laguntzea.

GOIZUETA

AZARO KULTURALA

'Artikutzako tren' liburuaren aurkezpenarekin abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Azaroak 3. 18:30ean udaletxeko ganbaran. *Artikutzako Trena* liburuaren aurkezpen-hitzaldia liburuaren bi egileen eskutik: Suberri Matelo eta Antton Mendizabal.

Azaroak 4. 09:00etan plazan. Artikutzara irteera *Artikutzako Trena* liburuaren egileekin. Herritik Kanterara autobusez jango gara eta bertan, ibilaldia egingo da Artikutzako trenaren aztarnak ikusiz. Autobusean apuntatzeko Amaia

kafetegian izena eman behar da. 2 euro pertsonako.

Azaroak 4 eta 5 Jubilatuen Asteburua.

Azaroak 11. 11:00etatik 13:00etara Plaza dantzak Mikel Lasarterekin, Umore Ona dantza taldearen eskutik.

Azaroak 11. 17:00etan Umeentzat jolasak eta txokolatada Guraso Elkartearen eskutik. 23:30ean Patxuko Nice gaztetxean. Gazte Asanbladaren eskutik.


Azaroak 12. 17:00etan

udaletxeko ganbaran, Pello Añorga ipuin kontalaria.

Azaroak 17. 18:30ean udaletxeko ganbaran. *Zera... Nola esango dizut, bada?* antzezla. Aktoreak: Garazi Olaizola eta Teresa Lopez de Munain. **Azaroak 18.** Katarrapikaka lehiaketa.

Azaroak 24. 18:30ean eskolako jangelan, Artantxuriketan. **Azaroak 25.** Feria eguna.

Abenduak 2. 11:00etan *Errefuxiatuak* hitzaldia, Luzia Etxeberria Nafarroako Brigada tal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Suberri Matelo eta Antton Mendizabal.

deko kidearen eta Nafarroako SOS Arrazakeria elkartearen eskutik. Gazte Asanblada eta Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean antolatua.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 21 EAN GAMIOXARREAN

2.600 kilo sagar jo dituzte Arizkungo Kirikoketa Egunean

Giro bikaina izan zen Gamioxarrean, Jo ala Jo elkarteak antolatutako ospakizunean

TTIPI-TTAPA

Kirikoketa bestaren hemezortzigarren edizioa ospatu zen urriaren 21ean Arizkunen, Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatua. Gamioxarreko dolarean gerora sagardoak bihurtuko den sagarra jo zen, 2.000 kilo inguru, eta horren inguruan hainbat ospakizun egin ziren. Gainera, bertze 600 bat kilo zukua egiteko eta pas-

teurizatzeko erabili dute.

Aurten sagar aunitz izan dute, gehiena Baztangoa eta %40 inguru Arizkungoa bertakoa. Gamioxarrean inguruan zaintzen dituzten sagarondoetatik bildu dute sagar aunitz. Sagastietatik astoak tiratzen zuten gurdian eraman zituzten sagarrak Gamioxarrera, Txuputokarrikatik beheiti. Jo ala Jo Taldekoek Kirikoketa erritmora jo zituzten Jo ala Jo taldekoek eta jendetza handia bildu zen Arizkunera. Karriketan eskulangileen postuak eta janari-edariak ere paratuak zituzten eta erraldoiak ibili ziren harat-honatean. Dena musika eta dantzekin ongi hornitua izan



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Eskalapinekin dantzan eta kirikoketa doinuan sagarra jotzen.

zen eta aurtengoan, dantza eskalapinekin egin zuten, baita oinutsik ere, egurrezko tarkeren gainean. Nola ez,

herri bazkari dotorea izan zuten goiz parteko ospakizunak akitzeko.

Bazkalondoan, berri ere musika eta dan-

tza izan zen, Manez eta Kobreak taldearekin eta arratsean Kupelategian egindako kontzertu eta parti apartarekin.

EUSKARA

Solaslagunaren aurkezpen berenduak eginen dituzte

TTIPI-TTAPA

Azaroaren hasieran, Solaslaguna programaren aurkezpen berenduak eginen dituzte Elizondan (azaroaren 2an, Arizkunenean), Lesakan (azaroaren 3an euskaltegian) eta Donezteben (Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan), 19:00etan.

Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako Solaslaguna 2007an sortu zen. Solaslagu-

na programan euskarazko mintzamina hobetu nahi duten hiztunak, txukun solastazenekin elkartzen dira talde ttiketian (normalean launaka edo bosnaka), astean behin eta ordu betez. Iaz 21 talde izatera ailegatu ziren eta 100 lagunetik goiti eman zuten izena egitasmoan.

Solaslaguna bezalako programetan parte hartzen dutenek euskara maila hobetzeaz

gain, gehiagotan erabiltzen dute eta ongi pasatzen dute, saioetan arront gustura egoten direla aitortzen dute.

Solaslaguna programan parte hartu nahi baduzu edo programari buruzko informazioa jaso, aukera polita izanen duzu Aurkezpen berendu horietan. Informazio gehiago 610 920673 telefonoan edo solaslaguna@topagunea.eus helbide elektronikoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskara ikasten ari diren lagunei laguntzeko edo ahozko euskara maila hobetzeko aukera ematen du.

KULTURA → AZAROAREN 5EAN EGINEN DUTE ERRATZUN

Aire zabaleko pintura lehiaketa Joxe Mari Apezetxearen omenez

Elizondoko Kasinok antolatu du bere sorterrian

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Kasinok urtero antolatzen duen aire zabaleko pintura lehiaketak, aurten, Erratzuko margolari handia izanen du gogoan. Horregatik, hain zuzen, lehiaketa Joxe Mari Apezetxea margolariaren sorterrian egingen dute, Erratzun, azaroaren 5ean.

16 urtetik goitiko margolari afizionatu guztiek parte hartzen ahal izanen dute, eta gaia Erratzu izanen da: Erratzuko paisaiak, txokoak, eraikinak... Parte-hartzaileek eraman beharko dituzte behar



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Joxe Mari Apezetxea zena gogoratuko dute lehiaketan.

dituzten materialak, eta lienzoak edo mihiseak ezin izanen dute 100 zentimetro baino handiagoak izan. Parte hartu ahal izateko 08:30etik 10:00etara Elizondoko Kasinotik pasatu beharko dute mihiseak zigilatzeke. Izen-ematea egunean berean egingen

ahal izanen da, baina bazkarira lagunen bategin joan nahi duenak aitzinetik eman beharko du izena: j.sanz@hotmail.com helbidera idatzita edo 636 974298 telefonora deituz. Egingdako lanak Kasinon aurkeztu beharko dituzte margolariek, 14:30 bai-

no lehen. Dagoeneko ohitua den bazkariaren ondotik, 17:00etan bilduko da epai-mahaia, sarituak erabaki eta sari banaketa egiteko. Irabazleari 800 euroko saria emanen diote, bigarrenari, berriz, 400 eurokoa.

FLASH

Eztigar kooperatibara bisita

Hazitik Hozie eta Jo ala Jo taldeek Eztigar kooperatiba ezagutzeko ateraldia antolatu dute azaroaren 4rako. 09:30ean abiatuko dira Elizondoko plazatik eta 10:30ean hasiko da bisitaldia. Sagar-doa, sagar-zukua, sagar-ozpina, konpota... egiten dituen Donaixtik kooperatiba herri-koia da Eztigar. Izen-ematea hazitikhozie1@gmail.com-en.

Folk ametsetan azken emanaldia

Udaleko Kultura Baztordeak antolatutako Folk ametsetan zikloaren azken emanaldia igande honetan, azaroak 5, egingen dute. Euskal Herriko Maite Itoiz & John Kellyren *Elfenthal* proiektuaz gozatzeko aukera izanen da 10:00etan Arizkunenea Kultur Etxean. Sarrera dohainik da tokia bete arte.

ferretería Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

BAZTAN

GIZARTEA → KANPAINA ABIATU DA

Ttikienendako erraldoiak lortu nahi ditu Elizondoko Konpartsak

Diru-bilketa kanpainarekin, egonaldiak, otorduak eta bertze sariak zozketatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Bestetan beraien ondoan izaten diren haur ttikiendako erraldoiak lortu nahirik kanpaina abiatu du Elizondoko erraldoi konpartsak. Gaur egungoek duten neurri eta pisuagatik ezin izaten dute parte



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Elizondoko erraldoi konpartsan, neurri ttikiagoko erraldoiak lortu nahi dituzte.



Ba al zenekien

Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekako gurasoentzat ludopatia eta komunikazioaren teknologi berrien erabileraren inguruko saioak egingen direla azaroaren 7, 14 eta 21ean Elizondon.

lau lagunendako otordua Elizondoko Santxotena jabetxean; eta bi bidots eta lau botil ardo.

Erakutsi eta probexitu aukerak!

BAZTAN TTIPI TXARTELA

 %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA <small>Galdetu dendan</small> T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com	 ESKAINNTZA Betaurreko graduatu pare bat erosteraoan, graduazio bereko bertze pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91	 %5 %5 DESKONTUA Kosmetika eta osagarrietan DESKONTUA laserrean eta gorputz-aurpegi tratamenduetan Santiago, 53 ELIZONDO T. 948 58 02 83	 %10 DESKONTUA Baterietan, olio aldaketa eta frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98
 %10 DESKONTUA kopia digitaletan Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	 %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	 %5 DESKONTUA neguko denboraldian zehar 10 eguneko abonoan Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01	 %10 DESKONTUA baterietan Datuegibela, 10 ELIZONDO T. 948 58 02 25
 %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	 %10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19	 %5 DESKONTUA olio aldaketetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	 %10 DESKONTUA eskeletan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58
 %10 DESKONTUA kontsulta-terapiari Santiago, 58 ELIZONDO			

KULTURA → AZAROAREN 5EAN, IGANDEAN 15:30EAN BAZTAN PILOTALEKUAN

‘Karmen Etxalarkoa’ Pastoralala Elizondon ikusteko aukera izanen da

Xorroxin Irratiak antolatua, Baztango Udalaren, Elizondoko Herriaren eta Baztandarren Biltzarra elkartearen laguntzaz

TTIPI-TTAPA

Karmen Etxalarkoa pastoralaz gozatzeko aukera izanen da azaroaren 5ean Elizondon. Baztan pilotalekuan izanen da hitzordua, igande arratsaldeko 3:30ean.

Jakina denez, joan den irailean bi emanaldi izan ziren Etxalarren. Irailaren 16 eta 17an ia urtebeteko lanaren emaitzaz gozatzeko aukera izan zuten ehunka lagunek. Arrakastaren ondoren eta urtebeteko lanari bertze aukera bat emateko asmoz, eta bide batez, Jose, pastoraletako protagonista



UTZITAKO ARGAZKIA

Karmen eta Joseren gorabeherak Elizondon ikusteko aukera izanen da igandean.

nagusietako bat elizondarra denez, *Karmen Etxalarkoa* pastoralaren bertze emanaldi bat antolatu du Elizondon Xorroxin Irratiak, Baztango udalaren, Elizondoko Herriaren, Baztandarren Biltzarra elkartearen eta hainbat norbanakoren laguntzaz.

Sarrerak salgai daude, 15 euroan, honako

salmenta puntu haue-
tan:

- ELIZONDO: Fantxike, Axular, Intza, Casino, Saioa, Arkupe
- ZUGARRAMURDI: Azketa
- URDAZUBI: Montxo
- ELBETE: Elbeteko Posada
- AMAIUR: Gaztelu elkartean
- ERRATZU: Altxuko

- denda, Gaineko Benta, Irigoien Benta
- ARIZKUN: Dolaetxea, Ordoki
- GARTZAIN: Frantsene
- IRURITA: Olari, Arkupe
- ARRAIOZ: Zubiondo ostatua
- LEKAROS: Hiru-Isturri
- ORONOS-MUGAIRI: Oskorri
- ALMANDOS: Beola

- DONEZTEBE: Titi, Ostiz estankoa
- SUNBILLA: Marisol denda
- LEGASA: Kattalin
- ARANTZA: Aterpea
- ETXALAR: Herriko Ostatua, Elutsa, Herriko okindegia
- LESAKA: Xagu, Izarra okindegia
- BERA: Errekalde, Xuga
- IGANTZI: Estankoa
- IRUÑEA: Katakarak
- BAIONA: Elkar

Bertzalde, sarrerak erreserbatzeko aukera ere badago. Xorroxin irratiara deituz (948 581226) edo e-postaz (xorroxin@gmail.com) idatziz egin daiteke erreserba. Erreserba egin ondoren, azaroaren 5ean txarteldegian hartu eta ordaindu behar du dira sarrerak. Azaroaren 5eko 14:00ak arte gordeko da erreserba. Ordu horretarako erreserbatutako sarrerak ez badira hartzen, antolatzaileek erreserban egondako sarrera horiek salgai jarriko dituzte.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C
ELIZONDO
T. 948 581 468
M. 630 354 818

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROS
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURAZIEN ENPRE

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA

T. 948 453 444
M. 688 605 182
ARIZKUN

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdi errep. 3 km
URDAZUBI

744 484 361

ttipi-ttapa

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → GISA GUZTIETAKOAK BILTZEN DITUZTE

Jostailuak birziklatzen hasia da Guraso Elkarteak

Ttikien eskolako jostailuak zahartu eta hondatuxeak daudenez, familien arteko bilketa bat antolatu du

Josebiñe eta Koro

Jostailuak ere birziklatzen dira, eta hori da hain justuki eskolako

Guraso Elkarteak martxan paratu duena. Ttikien eskolako jostailuak zahartu eta hondatuxeak direnez, familien arteko bilketa antolatu du.

Gisa guztietakoak biltzen dira, bai gelan erabiltzeko, baita patio-rako ere. Baldintza bakarra, nola ez, egoera onean egotea da. Gisa berean, jostailuez gain, ipuinak eta liburuak ere bildu nahi dituzte. Guztia eskolara eraman behar da, edo bertzenaz, Gu-



ARGAZKIA: JOSEBIÑE ETA KORO

Aurtengo ikasleak, 3 urtetik 2. mailarainokoak.

raso Elkarteko norbaite - kin harremanetan jarri.

Domini Saindu

Hortxe dugu Domini Saindu eguna, kanpulantua eder-eder emateko aitzaki eguna ere. Familia bakoitzak bere

eremua egiten du, baina horrez gain, Herriko Etxeak ere bere lana ere egiten du: belarra moztu eta bazterrak garbitu.

Aipatzekoa da Herriko Etxeak joan den urtean sarrerako paretaren moldaketak egin

zituela: pareta zuritu, zintzilika ziren harriak zimentarekin hartu, eta hesiaren burdinak pintatu zituzten. Heldu den urtean ere lanean segitzeko asmoa dute, etxolaren teilatua konponzeko.

URDAZUBI

GIZARTEA → 1.377.258 EUROKO KOSTUA IZANEN DU

Ur hornidura berritzeko lanak eman ditu Udalak

Obenasarena izan da proposamenik onena

Iñigo IMAZ

Ur hornidura berritzeko lanak emateko sorturiko Kontratazio Ma-

haiek puntuazio altuena lortu zuen enpresa kontratatzeko proposamena luzatu dio Udal Batzarrari urriaren 20an. Hiru enpresek aurkeztu zuten proposamena: Construcciones Mariezcurrena, Sasoi Eraikuntzak eta Obenasa. Azken horren propo-



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

POCTEFA 2014-2020 egitasmoa osatzen duten erakundeetako ordezkariak bildu ziren urriaren 4an Kultur Etxean.

Samena izan zen puntu gehien lortu zituena. Urriaren 27ko Udal Batzarrak oniritzia eman ondotik, berehala hasiko dira lanak.

Obenasak aurkezturiko proposamen ekonomikoak bertze bi

enpresen aldean abantaila nabarmena du. Ur hornitze lanen kostua 1.377.258,72 eurokoa izanen da (BEZa aparte). Oroitarazte aldera, aipatzekoa da, proiektu horrek Europa mailako FEDER fondoan lagunt-

za jasoko duela *Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020)* egitasmoaren baitan, eta Nafarroako Gobernuaren Herri Azpiegitura Plana 2017-2019 diru laguntzen onuradun ere izanen da.

GIZARTEA → ADIKZIOAK-TOXIKOMANIA-HEPATITISA-SIDA IZENENKO MEDIKU KONGRESU ZIENTIFIKOA IRAGAN DA MIARRITZEN

Bi senpertarrek ATHS Nazioarteko kongresua antolatzen lagundu dute

Adikzioei buruzko ekitaldia arrakastatsua izan zen

Pierre BASTRES

ATHS («Adikzioak-Toxikomania-Hepatitis-Sida (HIESA)»), izeneko kongresu zientifikoa munduko medikuntza kongresu ezagunenetako bat da. Urriaren 17tik 20rat iragan da Euskal Herrian, Miarritzen, hain zuzen. «Bizia», Baionako medikuntza azpiegitura batek antolatzen du bi urtetarik behin 2007z geroztik, eta azpimarratu behar da bi senpertarrek lan egiten dutela han, Cyril Olaizola eri-hartatzaile berezitua eta Cécilia Maître kargudun zientifikoa eta ekitaldikoa lehendakari ordeak.

90EKO HAMARKADAN SORTU ZEN 'BIZIA', BAIONAKO MEDIKUNTZA AZPI-EGITURA

Maitren erranetan, «Jean-Pierre Daulouede, Donapaleuko mediku ezaguna eta ATHS lehendakariak, 2000 inguruan, Bizia, Baionako Medikuntza azpiegitura sortu zuen. Izan ere, heroinarekiko menpekotasun kasuak aintzatu ziren itsuski Eskual Herri osoan, osasun publikoko arazo handi bat bilakatu zirelarik. Alde batetik, adikziodunak gaindosietatik salbatzeko; eta bertalde, heroina kontsumitzeari lotutako erita-



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Urriaren 17tik 20rat iragan da Miarritzen nazioarteko kongresua.

sunak murrizteko zerbait egin beharra zegoen. HIESA eta hepatitis kasuak oroz gainetik ari ziren emendatzen hein izugarri batetan gizarte osoan».

Geroztik, aunitz handitu eta zabaldu da Bizia, eta menpekotasun guzietatik artatzen dira orain Biziako 30 langile, mediku, psikologo, eri-hartatzaile eta hezitzaile berezituak.

Maitrek zehazten duen bezala «ATHS en helburua anitza da, hala nola, ezagutza zientifikoa partekatzea munduko adituekin, drogen kontsumitzaiek ekartzen dituzten galderak eta ondorioak ulertaraztea, horretaz solas egitea gizarteko aktore eta eragileekin, drogak kudeatzeko politikak neurtea etab. Kongresu zientifikoa da funtsean, bai, baina gizarteari ere idekitzen diogu. Horrek bereizten gaitu bertzeak bezalako ekitaldie-



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Cyril Olaizola eri-hartzaile berezitua eta Cécilia Maître kargudun zientifikoa senpertarrak.



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Cyril Olaizola kongresuan mintzo.

tarik. Gainera, guk, Biziako langileok goitik be-

hera antolatzen dugu ATHS, ekitaldiak anto-

latzeko enpresa espezializaturik deitu gabe! Hori ere gure berezitasunetako bat».

BORTZ KONTINENTETAKO 700 GOMITATU ETA 150 MINTZALARI

Aurtengo ATHSen 700 gomitek parte hartu dute, eta 150 mintzalarik mintzatu izan dute mintzaldi osoetan edo mahai-inguruetako lan taldeetan: «lan nekagarria da baina gure gisarat aritzen gara eta aurtan ere kalitatea horren sail guzietan. Bortz kontinenteko gomitak genituen, Australia, Europa osoa, Hego eta Ipar Amerika, Asia. Nazioarteko trukaketa baitzepadakoa da aipagai minbera horietaz. Arras kontent gara, baina ondikoz, aurtan ere Iparaldeko hautetsi gutti ikusi ditugu...». Olaizola ere egindako lanaz poztan da. «ATHSri esker, gure lanak bertze jendeekin partekatzen ahal ditugu. Adibidez, hepatitis eritasuna ahal bezain goizik despistatzeko eta nagusitzeko, jakitate eta teknikak zorrotzak baliatzen ditugu aspaldi, hemen, Bizian, emaitza onekin. Eta horretaz arduradun eta mediku aunitz interesatuak dira. Bainan ATHSetik kanpo ere trukaketa badauzkagu bertze euskaldekotako jendeekin, Euskal Herrian ere bai: Gazteizko Ai Lake-ekin, Bilboko Munduko Medikuek delakoarekin edo Nafarroako Hegoak elkartearekin, bertzeak bertze».

SARA

GIZARTEA

KULTURA → URRIAREN 14AN ESTREINATU DUTE

Picassoren 'Gernika' tinta erreproduzitu du Axuri'Artek

Bi hilabetez herriko bederatz artistak aritu dira galeriaren baratzeko paretan

Joana GERENDIAIN

Duela 80 urte, Picassok Gernikako herriak jasandako bonbardaketa salatzen zuen, "Gernika" margolana famatua tintatu zuen. Axuri'arte elkarteak, margolana eta tintatzaile ezaguna omentzeko, galeriaren baratzeko paretan "Gernika" tinta erreproduzitu dute. Bi hilabetez, herriko bederatz artistek lan egin dute paretan margo hori burutzeko. Joan den urriaren 14an estreinatu dute eta Zazpiak dantza taldeko neskek agurra dantzatu dute obraren aitzinean. Ondotik Arin gizon abesbatza, Ellande Alfaroren bertsoak eta Erlauntza abesbatza mistoa entzun dira.



ARGAZKIA: JOANA GERENDIAIN

Herriko bederatz artistak aritu dira bi hilabetez lanean.

Merkatuak

Sarako merkatuak bertze bi merkatu eginen ditu ostirala gauetz. Halere, azarotik goiti ez dute gehiago eginen. Horren ordez, bertze egiteko manera bat pentsatzen ari dira baina oraindik zehaztekoa dute.

Kontzertua Sarako Gaztetxean

Azaroaren 3an, ostirale arratseko 10etatik goiti kontzertua antolatu dute Sarako Gaz-

tetxean, Joseba B. Le noir (Bera) eta Kaskezur (Elizondo) taldeekin.

Kirol emaitzak

Urriaren 9an eskubaloian 11 urte azpikoek 20-11; 18 urte azpikoek 33-15; senior neskek 26-25 galdu dute. 13 urte azpikoek 32-18 irabazi dute eta mutikoek 19-18.

Urriaren 15 ean, 13 urte azpikoek 43-2 irabazi dute. Bertze ekipo guztiek galdu dute 19-18, 11 urte azpikoek;

26-22 15 urte azpikoek; 14-8 18 urte azpikoek; 25-23 senior neskek; eta 26-18 mutikoek.

Urriaren 21ean 11 urte azpikoek 33-8 galdu dute, 15 urte azpikoek 29-22, neskek 20-16, 13 urte azpikoek 45-4 irabazi dute eta mutikoek 35-12.

Errugbian, urriaren 15ean, basurdeek 24-17 galdu dute Mendikoteran kontra.

Urriaren 22an Azkaineren kontrako derbia irabazi dute, 16-8ko emaitzarekin.

NEKAZARITZA

Errigoraren kanpaina berria hasi da

TTIPI-TTAPA

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka Errigoraren kanpainak aitzinera segitzen du. Aitzineko ikasturtean, euskal herrien artean zubiak eraikitzeke erronka hartu zuen Errigorak. Antolatzaileen arabera, «zubiak eraiki ditugu kontzeptu ustez apartekoen eta berezitateko eremuetako ekin-tzaileen artean. Lurra eta euskara lotu ditugu. Auzolana eta elikadura-burujabetza. Nekazariak eta euskaltzaleak. Ekoizle eta kontsumitzaile arduratsuak». Eta aurtengo ikasturtean ere, zubi berrak segitzeko asmoa du Errigorak, «zubiak gurutzatzen segituz eta zubi gehiago marraztuz».

Urriaren 26tik azaroaren 14ra bitarte garatuko dute kanpaina, eta eskaera internetez egiteko aukera ere izanen da. Horrez gain, Errigorako karpak bat ibiliko da herriz herri, eta eskualdetik ere pasako da.

25 ekoizle bildu dituzte Errigoraren kutxetan, Nafarroako produktuekin osatuak. Bi kutxa izanen dira aukeran, zuria eta beltza, biak ere 50 eurotan. «Beltza Errigoraren hastapeneta koaren harira» izanen da, eta «zuria berrikuntzak biltzen dituen». Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarentzat «hauspoa» izatea nahi dute aurtengo kanpaina ere.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinetatik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
 948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
 DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
 ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALIETATIK EDOZEIN HERRIETARA

 LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

EZKONTZAK

Iñaki Erasun Antxorena eta **Marian Etxeberria Bikondo**, Doneztebe eta Erratzukoa, Erratzun irailaren 23an.
Aritz Telletxea Etxepare eta **Goiatz Zelaia Bengoetxea**, Lesaka eta Kor-tezubikoa, urriaren 23an Lesakan.
Josu Suarez Antxordoki eta **Sarai Uria Ubarretxena**, Igantzikoa eta Donostiakoa, irailaren 15ean Igantzin.
Miguel Maria Iribarren Irisarri eta **Lorena Gartziaarena Babaze**, Doneztebe eta Legasakoa, Legasan urriaren 30ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Manex Zelaia Jorajuria, Donamariakoa, urriaren 7an.
Goren Mujika Elizalde, Amaiurkoa, urriaren 6an.
Miren Garcia Igoa, Lesakakoa, urriaren 8an.
Aimar Muruzabal Martinez, Lesakakoa, urriaren 14an.
Rehana Baba Berrad, Legasakoa, abuztuaren 11n.
Dea Svetoslavova Zaimova, Legasakoa, irailaren 20an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Maria Josefa Almandoz Rementegi, Arantzakoa, irailaren 27an, 66 urte.
Gregoria Araneta Lertxundi, Gartzaingoa, urriaren 10ean, 88 urte.
Quintina Azpiroz Jaunarena, Iturengo, urriaren 13an, 92 urte.
Mertxe Tolosa Barandarain, Aresokoa, urriaren 14an, 85 urte.
Luisa Esquina Pineda, Lesakakoa, urriaren 16an, 77 urte.
Xari Lasa Iribarren, Elizondokoa, urriaren 16an, 76 urte.
Jose Mari Meoki Ariztia, Elizondokoa, urriaren 17an, 88 urte.
Maria Jesus Elizondo Aragon, Elizondon, urriaren 17an, 79 urte.
Maria Luisa Zubieta Tapia, Lesakakoa, urriaren 18an, 78 urte.
Manuel Sarobe Viela, Lesakakoa, urriaren 17an, 80 urte.
Francisco Javier Irisarri Telletxea, Etxalarkoa, urriaren 19an, 83 urte.
Martin Susperregi Arruti, Berakoa, urriaren 20an, 68 urte.
Carmen Elizalde Colau, Doneztebe, urriaren 20an, 91 urte.
Maria Teresa Altzugarai Telletxea, Lesakakoa, urriaren 24an, 85 urte.
Carmen Sedano Ibarra, Sunbillakoa, urriaren 24an, 96 urte.



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

XII. URTEURRENA

*Izan zirelako gara
Garelako izango dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.*

ETXEKOAK



Pakita LUSARRETA ITURRI

Leitzan, 2015eko azaroaren 13an

II. URTEURRENA

*Gezurre dirudi joan zarela,
oroitzapen onak utzi dizkiguzu
eta gauze ederrak erakutsi.
Beti izanen zaitugu gure ondoan,
adiorik ez, gero arte baizik.*

ETXEKOAK

*Rekordatorioak
egiten ditugu*

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458

Familiarekin Kantabriara oporretan joan eta bizikleta zirkuitu bati begira galditu zen Oier Mitxelena. Hortxe hasi zuen, 12 urte zituela, trialsin kirolarekiko lehen kontakua. Orain,

17 urte ditu eta dagoeneko, hainbat txapelketetan parte hartu du: bai, Nafarroan, EAEn zein Espainia mailan, baita Kantabria eta Asturiasko txapelketaren batean ere. Areago,

Nafarroako txapeldun izan da lau aldiz. Hagitz ezaguna ez izanagatik, berezia eta ikusgarria den kirol hori ezagutarazteko eta bere ibilbidearen berri izateko aukera eskaini digu.

Oier MITXELENA | Trialsin kirolaria

«Munduko kopan parte hartzeko prestatzen ari naiz»

Nerea BAZTERRIKA | BERA

Ttikitatik kirola gustatu izan zaion beratar gaztea da Oier Mitxelena. Sei urteetatik hamabi urteak bitarte pilotan jokatu zuen. Baina ondok, trialsinean hasita, pilota baino gustukoagoa zuela ohartu eta aldatetaren aldeko apustua egin zuen, «orain ez naiz damutzen».

«Trialsina bizikleta gaineko triala da. Betidanik gustatu izan zait triala, aita motoz ibiltzen da eta mila aldiz saiatu banaiz ere, gurasoek ez didate inoiz motorik erosi». Kantabriara oporretan joan eta bizikleta ikuskizun bati begira geldituta izan zuen trialsinarekin lehen kontakua, hamabi urte zituela: «hortxe ikusi nuen nire burua, bizikleta gainean».

BALIABIDE URRITASUNA

Hagitz ezaguna ez den kirola izateak entrenatzeko baliaabideak eskura izatea oztopatzen dion arren, gustuko lekuan aldaparik ez du ikusten beratar gazteak: «gehienetan Irunera joaten naiz, ospitale ondoan badira harri batzuk horretarako jarriak direnak; aitzak lana duenean eta inork eraman ezin nauenean, berriz, Beran, etxe ondoan, ibiltzen naiz».

Edonola ere, toki batean edo bertean, bai-

PROBATZEKO GONBITA

«Hasiera gogor xamarra bada ere, pixkanaka, zure buruarengan hobekuntzak ikusita, gero eta gehiago lotzen zaituen kirola da. Jendea probatzera gonbidatuko nuke, bizikleta gustatuz gero, ziur trialsina ere gustatuko zaiola!».

FUNBOX FACTORY

«Bertzeak bertze, Martxel Arribillaga herritararekin batera Dirt jump eta trialsina ezagutzera emateko Euskal Herrian barna ikuskizunak eskaintzen ditugu».

na «egun guztia horretan» pasatzen duela aitortu digu: «egunero ordu eta erdi ibiltzen naiz bizikletarekin goiti eta beheiti, eta astean hirutan gimnasioan».

Gimnasioari beranduago heldu dio, «joan den urteko abenduan» hasi baitzen.

NAFARROAN TXAPELDUN

Hagitz ibilbide emanorra izan da Oier Mitxelenarena. Bortz urte daramatza kirol horretan murgildurik eta Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia mailako txapelketetan, baita Kantabria eta Asturiaseko bakanen ba-



ARGAZKIA: AINHOA LARRETXE

Oier Mitxelena, trialsin ikuskizuna eskaintzen.

tean parte hartu du. Areago, Nafarroa mailan lau txapelketa irabazi ditu eta Espainia mailan lehenengo hamar sailkatuen artean dago.

Lehenengoa «hamahiru urterekin izan zen, hasi eta urtebetera» eta geroztik «Nafarroako bertze hiru txapelketak irabazi ditut».

IKUSKIZUNAK

Txapelketetan parte hartzeaz gain, ikuskizunak ere eskaini ditu Euskal Herrian barna Funbox factory taldearekin. Gainera, uda honetan,

herrian bertan Gure Esku Dagoren bozkalekua ere ireki zuen, «bizikleta gainean eman nuen botoa, eta eguneko lehen botoa izateaz gain, bozkatzen nuen lehen aldian, urduritasunez baina emozioz bizi izan nuen momentua».

ETXEKOEN LAGUNTZA

Aitarengandik jaso duen laguntza azpimarratu nahi izan du: «berak erakutsi dit gehiena, hantxe ibiltzen da harat eta honat entrenatzera eramaten, bizikleta moldatzen... dena berak egi-

ten dit, etxe ondoan ere eraman ezin nauenean ibili ahal izateko toki bat prestatzen lagundu dit».

ETORKIZUNA

Laguntza handia izanagatik eta orain artean dena ederki joanagatik, etorkizunari beldur pixka bat diola onartu digu, «aurten ikusten dut zerbait egiteko aukera, heldu den urtean mailaz goititzearekin gauzak zailtzen dira». Hala ere, egin ahalak eginen dituela erran digu, «munduko kopan parte hartzeko prestatzen».

ATLETISMOA → URRIAREN 21EAN BERAN

Chakib Lachgar eta Lurdes Oiartzabal nagusi Lizuniagako 37. Igoeran

Marokoarrak probako laugarren marka onena egin zuten

TTIPI-TTAPA | BERA

Lizuniagako Igoeran 37. edizioa egin zen urriaren 21ean Beran. Proba nagusian 71 korrikalari atera ziren eta Chakib Lachgar eta Lurdes Oiartzabal suertatu ziren garaile. Aitzinetik, 80 neska-mutiko ibili ziren Berako karriketan lasterka.

Proba nagusian, hasieratik Errenterian bizidun Chakib Lachgar marokoarra jarri zen laisterketa buru. Chakib Lachgarrek 1.500 metrotan Gipuzkoako errekorra du eta lehen parte-hartzea zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lizuniagako Igoeran parte hartu zuten korrikalarien erdiak Berakoak ziren.

Bere herrialdekide den Abdelfettah Loujoari-k 2008an ezarritako errekorra (16:01) gainditzea zuen helburu. 3. kilometroa 9 minutu eta 6 segundotan pasa zuen baina azken tarte gogorra egin zitzaion eta 16 minutu eta 26 segundoko denborarekin errekorretik

25 segundutara geldituz (hala ere, Lizuniagako igoerako historia-ko laugarren denborarik onena lortu zuen).

Chakib-en gibeletik, azken urteetako irabazle izandako Alberto Barberena baztandarra (17'58") eta Victor Madejon irundarra (18'10") sartu ziren.

Emakumeetan, Lurdes Oiartzabalek irabazi zuen laugarren aldiz segidan (22'13"). Monika Telletxeak lortu zuen bigarren postua 20 segundutara helmugaratu (22'32"), eta Ane Elzaurdia eta Saioa Garbisu beratarrak elkarbanatu zuten 3. postua (26'04").

Pena da, emakume partaideen kopurua jautsi egin zela aurreko urteekin konparatuz (ea datorren urtean berriz ere igotzen den!). Eta azkenik Bautita Telletxea aipatu beharra dago: aurten ere laisterketa ongi burutzea lortu du, 37 edizioak bukatu dituen bakarra izanik.

HERRI KIROLA → URRIAREN 22AN BERAN

Onsalo eta Eugi nagusi arpana txapelketa mistoan

Nafarroako txapeldun izan dira bigarren

TTIPI-TTAPA | BERA

Nafarroako arpana txapelketa mistoa urriaren 22an jokatu zen Berako Altzateko pilotale-

kuan. Zortzi bikote aritu ziren bosgarren edizioa bete duen txapelketa horretan eta etzanda jarritako enborrean hamar ebaketa egin behar zituzten. Aresoko Itxaso Onsalo eta Beunzako Mikel Eugi erraz nagusitu ziren (4:24). Bi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako arpana txapelketa mixtoan parte hartu zuten kirolari guztiak.

garren izan ziren Eltso-ko Ainhoa Iraizoz eta Iraizozko Josetxo Barberena (5:26). Podiuma osatzen, hirugarren izan ziren Arraiozko Xabier Urrutia eta Berako Nerea Sorondo (5:39).

4. postua Arostegiko Imanol Kañamaresek eta Txantreako June Etxeberriak eskuratu zuten (5:44); 5.a Arostegiko Oier Kañamaresek eta Elgorriagako Irune Izkuek (5:57); 6.a Berriozarko

losu Huartek eta Txantreako Uxue Rodriguezek (8:00), 7.a Antsoaingo Endika Garaik eta Antsoaingo Irune Biurrunek (8:07) eta 8.a Txantreako Alis Alonsok eta Jone Hualdek (8:14).

azaroak 2 - 16

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Pastoralak



ELIZONDO | 2017.11.05

**'Karmen Etxalarkoa' pastorala
Elizondon ere ikusgai**

Etxalarren eskainitako pastoralak izandako arrakastaren ondotik, Elizondon bertze emanaldi bat antolatu du Xorroxin irriatiak. Azaroaren 5ean izanen da Baztan pilotalekuan, 15:30ean hasita.

Kontzertua



BERA | 2017.11.11

Isidoro Fagoagaren omenez azken ekitaldia

Isidoro Fagoaga gogoan, urte osoko ekitaldiak borobiltzeko, azaroaren 11n goimailako kontzertua antolatu dute San Esteban elizan. Errenteriako Andra Mari abesbatzak emanaldia eskainiko du.

Lehiaketak



ERRATZU | 2017.11.05

**Joxe Mari Apezetxea gogoan
margo lehiaketa antolatu dute**

Elizondoko Kasinok urtero antolatzen duen aire zabaleko pintura lehiaketa, aurren, Joxe Mari Apezetxea margolaria gogoan egingen dute. Hori horrela, bere sorterrian, Erratzun, egingen dute lehiaketa.

Erakusketak

BERA

Asier Gogortzaren 'Muga' erakusketa

Azaroaren 12ra arte
16:00etatik 19:00etara
Kultur Etxean.

BERTIZ

**'New Yorketik Erratzura' Diana
Iniestaren margo erakusketa**

Azaroaren 6ra arte Bertizko
Natura-Parkean.

ELIZONDO

'Emakumea Hegoaldean'

Azaroaren 13tik 24ra Bekarako Lankidetzak Batzarrak antolatuta, Arizkunenean.

Komete sarea

Azaroaren 13tik 30era Urdaburu Mendizale Taldeak antolatuta, Arizkunenean. 17:00-20:00.

Solosalldiak

ARANTZA

'Anai-arreben arteko norgehiagoka eta konplizitatea'

Azaroaren 16an 16:30ean eskolan.

DONEZTEBE

Haurrei nola solastu hizpide

Azaroaren 16an *cómo hablar a los niños*, 14:30ean eskolan.

Tailerrak

ELIZONDO

'Produktu turistikoaren komertzializazioa eta salmenta'

Azaroaren 2, 3, 8, 9 eta
10ean 20 orduko ikastaroa
Arizkunenean, 15:30-19:30.
Izen-ematea: 666 615761 edo
noeliasampedro81@gmail.com.

'Landetxeen kudeaketa'

Azaroaren 13, 14, 16, 17, 20,
21, 23, 24, 27 eta 29an
Arizkunenean, 15:30-19:30.

Izen-ematea: 666 615761 edo
noeliasampedro81@gmail.com.

Zaintzailearen tailerra

Azaroaren 16an eta 23an

Osasun Zentroan, 12:00etatik 13:30era. Izen-ematea Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta.

Estresa eta antsietatea gainditzeko

Azaroaren 15ean, 22an eta 29an Osasun Zentroan, 10:30etik 13:00etara. Izen-ematea Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta.

Bizkarraren inguruko tailerra

Abenduaren 13an Osasun Zentroan, 11:00etik 13:00etara. Izen-ematea Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta. 14:00).

GOIZUETA

Sukaldaritza ikastaroa

Azaroaren 15, 22 eta 29an
18:00etatik 20:00etara Umore Ona Elkartearen.

Antzerkiak

BERA

XIX. Kafe-antzerki zikloa

Azaroaren 3an Gilkitxarro taldearen *Morbus Operandi* 22:00etan Katakua ostatuan.
Azaroaren 10ean Joseba Usabiaga eta Iñaki Santosen *Ni ala zu* antzezlanak 22:00etan Auzoa ostatuan.
Azaroaren 17an Jon Martin, Arkaitz Oiarzabal *Xamoa*,

PROPOSAMENA

LEITZA

Bertako produktuen azoka azaroaren 12an

Hirugarren urtez, Leitza eta Aresoko produktuen azoka antolatu dute Leitza azaroaren 12rako. 10:00etatik 14:00etara izanen da eta 30 bat parte-hartzaile espero dituzte. Animailien erakusketaz gain, garaiko produktuez osatutako salmenta postuak jarriko dituzte: barazkiak, gazta, babarrunak, eztiak, intxaurra, arto-irina, sagardoa, marmelada, bertan egindako gozoak...



Andion Iturbe eta Eñaut Gantxegiren eskutik *Espuela nahi?* antzezlanaz 22:00etan Bidaxka ostatuan.

ELIZONDO

Karmen Etxalarkoa pastorala

Azaroaren 5ean Baztan pilotalekuan, 15:30ean.

Ikuskizunak

LESAKA

'Ttirikontu-kontari' haurrentzako ikuskizuna

Azaroaren 5ean Harriondoa Kultur Etxean 17:00etan. 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzako.

Jardunaldiak

GOIZUETA

'Goizuetan lan eta bizi'

I. jardunaldia

Azaroaren 7an 18:30ean udaletxeko ganbaran. Hizlari- en artean, Juanjo Elizalde eta Ernaitzu Kooperatibakoak.

Zinema

DONEZTEBE

Guraso Elkartearen eskutik

Azaroaren 5ean *El bebé jefazo* pelikula, 18:00etan.

Azaroaren 19an *Desdencientes 2* filma 16:30ean.

Lehiaketak

ERRATZU

Aire zabaleko pintura

lehiaketa Joxe Mari Apezetxearen omenez

Azaroaren 5ean 08:30etik 14:30era, Elizondoko Kasinok antolatuta.

Kontzertuak

SARA

Joseba B. Lenoir eta Kaskezur

Azaroaren 3an 22:00etatik aitzinera Gaztetxean.

ELIZONDO

Folk ametsetan

Azaroaren 5ean Maite Itoiz eta John Kelly Arizkunenean, 19:00etan. Sarrera dohainik lekua bete arte.

Nire aukera



Oihana IRAOLA

Leitzar gaztea

«Baserriak komunitatean eta elkar zainduz bizitzeko gunea behar luke»

Baserritik bizitzea amets izan duen hogeita bost urteko leitzar gaztea da Oihana. *Bizi itzazu ametsak, amestu beharrean* dio kantak eta horren adibide garbia da leitzarra: «ttikitako nahia izan da baserrian, animalia artean, bizitzea. Nerabezaroan posible litzatekeela pentsatu nuen eta egun halaxe bizi naiz». Ezin esan, ordea, baserri munduan guztia arantzarik gabeko larrosak direnik. Arantzak kenduz, hau da, «baserriaren iluntasuna, izaera familiarra, botere harremanez betea...» eta kutsu tradizionala gaindituz, «komunitatean eta lagunekin bizitzeko, elkar zaintzeko» gune bilakatu nahi izan du. Ikasketak akitu ondotik, jomuga argiekin ekin zion Oihanak denbora luzez buruan bueltaka zerabilen proiektuari: «lagun bat eta biok hasi ginen eta hasieran oilasko ekologikoak ekoiztea zen asmoa». Asmo txikiak asmo handi bilakatu zaizkie, «eskaintako baserriak lur handia du, eta horrek dibertsifikaziorako aukera eman digu». Horrela, «azken urteetako abeltzantza eredu bakarrarekiko kontrastean, aniztasunaren aldeko apustua egin dugu». Urtebete daramate proiektu horretan murgildurik, eta zailtasunak izugarriak izan dira: «bai alokairuaren karga, bai lege eta administrazio kontuak eta baita salmenta zuzeneko bideak ezagutzekoa ere». *Gustuko lekuan aldaparik ez* dagoenez, gogor lan eginez produktu «ekologikoak, hau da, abonu kimikorik gabek» eta «maitasun eta mimo askoz» gozatuak eskaintzea lortu dute. Edonola ere, «baserriaren etorkizuna nahiko beltz» dagoela uste du: «asko hutsik daude, beste asko erortzen ari dira», eta «baserri hutsak betetzeko, bertan eta bertatik bizitzeko... aukerak izan badiren arren, norabide aldaketa izugarria falta zaigu». Norabide aldaketaren ardatza herritarron esku dagoelako, azaroaren 12an eginen den Leitza-Aresoko produktuen azokan, inguruan ekoizten diren produktu fresko eta elaboratuak ezagutzeko eta erosteko aukera paregabea izanen dugu. Gogoratu, «bertan eta bertako produktuak kontsumituz baserri munduaren jarraipena ahalbidetzen dugu!».

«Bertan eta bertako produktuak kontsumituz baserri munduaren jarraipena ahalbidetzen dugu.»

BERA

Errenteriako Andra Mari abesbatzaren kontzertua

Azaroaren 11n 20:00etan San Esteban elizan.

ARANTZA

Oibarko Aritza abesbatza

Azaroaren 25ean eskolako gimnasioan, 20:00etan.

Bertsoak

LESAKA

Bertso-gaztain jatea

Azaroaren 11n Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin, 20:30ean Basurden.

Ospakizunak

GOIZUETA

Jubilatuena Eguna

Azaroaren 4an eta 5ean.

Bestak

AURTITZ

Sanmartinak

Azaroaren 9tik 12ra.

Azokak

SARA

Ekoizleen azoka

Larunbatetan 08:00etatik 13:00etara frontoian.

LEITZA

Areso eta Leitzaoko produktuen azoka

Azaroaren 12an. Xehetasunak 31. orrialdean.

DONEZTEBE

Feriak

Azaroaren 17an. Xehetasunak 23-27. orrialdeetan.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Azaroaren 5ean Elizondo-Egozkue-Elizondo (08:00).

Azaroaren 12an Azpilkuetatik Alkurruntzera 07:30ean abiatuta.

Azaroaren 19an Elizondotik Auritzera 06:00etan abiatuta.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akulegi ka - rrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitx prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak base- rriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukalde estreinatua gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gas-tu gutxi ditu, atezainarekin. ☎608 777926.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

ZUGARRAMURDI. Apartamentu tiki bat errentan emateko. Partzela eta baratzearekin. ☎659 849570.

Dantxarinetik hurbil, 85 m²ko apartamentua errentan emateko. 2 logela, sukalde hornitua, 2

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

balkoi eta trastelekua. Toki lasaia. ☎690 388134.

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

LANA
eskaintzak

BERA. Jatetxe batean esperientzia pixka bat duen zerbitzaria behar da lanean aritzeko. ☎617 723475.

BERA. Katakua ostatuan, sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu edo idatzi ☎617 489765.

LESAKA. Kafetegi batean egun erdiz aritzeko langilea behar dugu. Bidali curriculumak: *m.eva oqi@gmail.com*.

BERA. Ibardinen zerbitzaria eta supermerkatuan aritzeko langilea behar dira, frantsesa dakitenak. Bidali curriculumak *beo laetxea@gmail.com*-era

edo deitu: ☎948 630709.

Industria langilea behar da **Aranorako**. Beharrezkoak: Goi Mailako zikloa, autonomia, lan gogorra egiteko ahalezia, epe luze- rako inplikazioa. Baloratzeko: mekanika, elektrizitate eta soldadura ezagutzak. Kontratu mugagabea. Lana: produkzioak kudeatu, martxan jarri eta kontrolatu. Eskariak bidali: *fabricacion@blueagro.com*.

Fabrika batean aritzeko langilea behar da. Bidali curriculumak helbide honetara: 8. Posta Kutxa, 31700 Elizondo.

LANA
eskariak

Adinekoak edota haurrak **zaintzeko eta garbiketa lanetarako lan bila.** Esperientzia zainketan baita garbiketean ere. Interneta bezala lan egiteko prest. ☎602 895536.

Baztan eta inguruan lan bila. Zerbitzari, saltzaile eta teleoperadore izana. Informatika aplikazioekin eguneratua. Esperientzia haundia bezeroentzako arretan. Pertsona arduratsua, aktiboa eta gaitasun komunikatiboekin. ☎630 452189.

BAZTAN eta INGURUAN. Garbiketean aritzeko eta adinekoak eta haurrak zaintzeko lan bila. Esperientzia zaintzan eta garbiketean. ☎644 778212.

MOTORRAK
salerosketak

Remolkea salgai: 2,40 x 1,40 x 1,55 neurriekin, gi-



beleko atea alde batera eta beheiti irekitzen dena, bazterreko ate ttikia eta kapota goratzen dena. 750 kilorendako homologatua, berri-berria. ☎948 581039 / 606 835505.

Ford Mondeo TDCI salgai. 51.000 km errealak, kontzesionario ofizialean. 2011koa eta extra posible guztiekin: argi-, aparkatzeko- eta ur-sentsoreak, abiaduraren kontrola eta erreguladorea. Whatsap-pez eta deituta informazio gehiago. ☎667 329393.

**ANIMALIAK**
salgai

URDAZUBI. Bi hilabete-ko labrador txakurkumeak salgai. Txertatuak eta desparasitatuak. ☎948 599121 / 609 878003.



Border Collie zakurkumeak salgai. Arrazakoak,

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 42 €

Zerri gizena
1,137€ kiloak.

Zerramak:
0,590 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal
Extra 4,35

1.koa 4,13
2.koa 3,93

Urruxak: €/k Kanal
Extra 4,37
1.koa 4,23
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,50/9,10
8-10 kilokoak: 6,90/7,40

ama eta atta artzain zakur onak. ☎639 708414.


Euskal artzain zakurkume iletsuak salgai. ☎675 705238 / 675 705243.



20 ardi muturgorri salgai, ernari, azaroan umatzeke. ☎697 440590.

ANIMALIAK
galdu-aurkituak

Katua galdu da. Norbaitek aurkitu edo ikusten badu, eskertuko genuke deitzea: ☎647 617221.



ZERBITZUAK
psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Paga eta hari-tza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.




Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 zentimetroko neurriarekin. Forma borobila. ☎948 585036.

ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

Sukalde industrialia salgai, erabili gabea. Gasezkoa, sauter etxekoa. Labearen neurria: 45 x 85. ☎659 849570.




LG telebista salgai: 37 pulgada, mandoa eta USB, SLOT, HDMI, RGB IN, AV1-AV2, audio eta bideo irteerekin. Sony definizio altuko **multimedia aparatua** ere salgai: DVD, disko gogorra eta HDMI, AV1-AV2, audio eta bideo



SANTESTEBAN TAILERRAK
Estreintatu gabea
18.750€ **KM 0**
KADJAR INTENS DCI 110 CV
Sustapen finantzieroei lotua
Estreintatu gabea
14.650€ **KM 0**
MEGANE TECH ROAD DCI 90 CV
Sustapen finantzieroei lotua
Laitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

irteerekin. Disko gogorrean eta DVDan grabatzeko aukera. 300 euro. ☎610 385867.

Garajeko ate baskulagarria salgai. Neurriak:



KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 431 218
kateabera@telefonica.net

2,59 metro zabal eta 2,26 metroko altuera. Egoera hagitz onean dago. ☎686 836380 / 606 194404.

KULTURKARI
DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA
T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK
OROITGARRIAK | TXARTELAK | ORRI MUTUAK | POLTSAK
ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...

IREKITA

Herrian erosi, euskaraz erosi



Eman **KOLOREA** mundu grisari!



PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI

OIHANEAN GALDUTA



1

Zenbat otso ikusten dituzu?



5

Bada txoririk? Zenbat?

6

Bada arratoirik? Zenbat?



2



Eta zenbat untxi?

7

Eta azeririk? Zenbat?

3

Bada sugerik? Zenbat?



4

Bada sagarroirik? Zenbat?



1

.....

2

.....

3

.....

4

.....

5

.....

6

.....

7



.....

BELDAR GOSETIA

Zenbat hosto janen ditu beldarrak bere kuskuan sartu baino lehen? Horixe jakin nahi baduzu, beldarra dagoen tokitik abiatu eta, hostoz hosto, kuskuraino ailegatu behar duzu, ezkerrera, eskuinera, gora edo behera mugituz (sekula ez, diagonalean).

PAREAK

Zein da behin bakarrik agertzen den elementua?



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

BEHAKETA

Hona hemen Maripurtzil bi egoera guztiz desberdinetan. Goiko honetan istripu txikia izan du. Behekoan lasaitu ederra hartzen ari da. Hala ere, badira sei elementu bi marrazkietan errepikatzen direnak. Zeintzuk ote dira?



urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



URKO TELLETXEAK
3 urte bete zituen urriaren 12an. Zorionak familiaren partetik! Muxuk potoko!!!



Berako **OIHANE ALMANDOZ TAPIAK** 6 urte beteko ditu azaroaren 2an. Aunitz urtez eta egun ona pasa!




IORITZ TAPIA eta **OIHANE ALMANDOZ**: Ioritzek 8 urte bete ditu urriaren 22an eta **OIHANEK** 6 urte beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak familia guztiaren eta bereziki Unax, Laia eta Aimarren partetik!!



Berako **ADUR** eta **OINATZ AROZENA** **ELRIOK** 4 urte bete dituzte urriaren 22an. Zorionak sorgintxok familia guztiaren partetik. Muxu potoloak!




BEÑAT UGARTE ALMANDOZEK 2 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak maizia! Muxu haundi-haundi bat etxekoaren partetik.



Urrietako **EKHI MUTUBERRRIA** **PIKABEAK** urte bat beteko du urriaren 15ean. Muxuak familia guztiaren partetik.



Azaroaren 7an sei urte beteko ditu **IREBER INDAKOETXEA MENDIZURI** gure etxeko erregeak. Zorionak **IREBER** ilargi, aita, ama eta Usurbil eta Hemaniko familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Sunbillako **XUBAN JAUREGI** **GARTXITORENAK** urriaren 28an 7 urte bete ditu. Zorionak Doneztebeko familiaren partetik.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa erran.eusen

argazki soila
5
EURO

argazki bikoitza
10
EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN



Atera **TTIPI TXARTELA** hemen
probextu aukera!

Erabili **Ttipi txartela** pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan



Hotel Churrut
HOTEL

Lenkonea Jatetxea

Hainbat ospakizunetarako zerbitzuetan eskaintza zabala



Reyes Osua Martín
jaketxeko arduraduna eta
Aitor Etxeberria Lekuona
sukaldariaren eskutik
Lenkonea Jatetxea
aurkezten dizugu

90 lagunentzako tokia.
Jangela nagusiaz gain, lorategi aldera
beirate zabala duen galeria, solairuarte
eta aparkaleku pribatua ditu.
Inguruaz gozatuz, aperitibo eta
koktelak hartzeko lorategi ederra ere
aurkituko duzu.

Ospakizunetarako leku berezia da, eta menu eskaintza zabala eskaintzen du:

- Bataioak eta jaunartzeak: 35 €tik aitzinera
- Ezkontzak: 60 €tik aitzinera
- Familia, enpresa, kinto bestak, etab.: 30 €tik aitzinera

Eguneko menuan ere eskaintza zabalak aurkituko dituzu.
Asteleheneetik ortzirale eguerdira bitarte, lehenendabizikoak,
bigarrenak eta postreak aukeran izanen dituzu.



Berezitasuna, ukitu modernoa eta kalitateko produktuak erabiltzen dituen sukaldaritza tradizionala da



Enpresentzat, bilera pribatuak, kongresuak,
jardunaldiak, etb. egiteko toki berezia ere bada.

2017ko Urte Zahar Gaueko Menua

- Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin
- Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin
- Ganboiak plantxan
- Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin
- Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin
- Etxeko kremazko tututxoak, txokolate bero eta praline-izozkiarekin
- Eguberrietako gozoak
- Mahatsak, cava eta kotilioi poltsa
- Erreserbako Pata Negra ardo ondua, Las Campanas ardo gorria eta zuria, Codorniu Brut cava
- Kafea eta likore-kopa

Urte bukaera ahaztezina pasatu nahi baduzu, dagoeneko 2017ko Urte Zaharreko kotilioia eskuragarri duzue (75 € BEZ barne).

Urte bukaerarako paketea ere eska dezakezue, afariak gain, Churrut hotelean egonaldia eta gosaria barne dituen.

Ttipi Txartelaarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

696 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Lesaka Kiroldegia - 2 sarrera

Mikel Arburua Etxeberria | IGANTZI

Irrisarri land - 2 sarrera

Miguel Angel Oartzabal | DONEZTEBE

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

M^a Angeles Muxika Etxebertz | AMAIUR

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

M^a Catalina Zabaleta Zabaleta | LEITZA

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Mirentxu Erkizia Arrieta | IRURITA

Martiko - Lote bat

Elisabet Grazenea Irigoien | NARBARTE

Elkar argitaletxea - Liburu bat

Enara Iribarren Bertiz | BERA

Elkar argitaletxea - Liburu bat

Begoña Urrutia Juanikorena | IRAIOZ

2 tiket



BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkugeozotegia.com



Lote bat

**LI + BU + DVD
RUA**



**Bertsolari
txapelketa
2008**

Lanku

www.lanku.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.lanku.eus



www.irrisarriand.eus